



# URTEKARIA DEBAGOIENA 2016



Zorionak eta urte berri on!



LASA  
jatetxea

Ozaeta jauregia - BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55  
www.restaurantelasa.es  
reservas@restaurantelasa.es

# URTE BERRI ON GUZTIO!



**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE

## BERGARA IGOGAILUAREN INAUGURAZIOA MIZPIRUALDE EGOITZAN

Egoiliarren zein Zabalotegiko bizilagunen irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, Mizpirualde egoitzaren kanpoko igogailua inauguratu zuten urtarrilaren 14an. Bergarako alkatearekin batera Antzuolakoa eta Elgetakoa izan ziren ekitaldian.

## ARETXABAETA AGUSTINDAR MOJEN KOMENTUA EROSI ZUEN UDALAK

Agustindarrek Aretxabaletatik alde egin ostean, komentua erostea erabaki zuen Udalak. Mojek 1.100.000 euroko balioa eman zioten eraikinari eta inguruko lursalei, baina %40 dohaintzan eman zuten, "herritarrendako izan zedin".

## ELGETA BERRIKUNTZAK GOIBEKO EUSKALZALEON TOPAGUNEAN

Ziklo berri bati ekin zion Goibeko Euskaltzaleon Topaguneak hamar urtean Espaloia kafe antzokia kudeatu ostean. Urtarrilean 225 bazkide zituen elkarteak Ainara Iribar izendatu zuen presidente. Euskarak lan ildo nagusi izaten jarraituko zuela iragarri zuen.

25 URTE



BERGARA ELENA LETE ALKATEA

Txatxilipurdiren Gabonetako parkeak, Txikilandiak, 25 urte bete zituen. Ehunka ume batu ziren, beste behin, urteko lehen egunetan, euskaraz jolas egiteko.

Urtarrilaren 11n izendatu zuten Bergarako alkate Elena Lete; Juanje Alberdik utzitako lekua bete zuen. Egun berean, Igor Oiarbidek zinegotzi kargua hartu zuen.



## OÑATI Maddi Dorado Hernandez, 2016ko lehen umea

2016an Hego Euskal Herrian jaiotako lehen umea izan zen Maddi Dorado Hernandez oñatiarra. Debagoieneko Eskualde Ospitalean, Arrasaten, jaiotzen izan zuten lehen umea, gaurdian pasa zenean, 00:03an, hain justu ere, eta 3,1 kilo pisatu zuen.

Harrera beroa egin zieten alaba txikiari Tania eta Iñaki gurasoek, eta Ainhoa ahizpak (argazkian, besoetan estututa). Bai umea, baita ama ere, osasuntsu zeuden.

## BERGARA

### Hotz taldea sortu zen errefuxiatuei laguntzeko

Errefuxiatuen krisiak eragindako egoerarekin kezkatuta, Hotz taldea eratu zuten Bergaran, eta Europa ekialdeko kanpalekuek bidaltzeko arropa bilketa egin. Honako hauek jaso zituzten: neguko arropa; barrukoak; txano, eskularru eta lepokoak; oinetakoak; manta eta lo zakuak; motxilak; baloiak eta pilotak...

Ekimenak inguruko herrietan ere piztu zuten interesa; hala, Hotz Oñati taldea sortu zuten Oñatin, eta han ere bilketa egin.



## BERGARA

### 04/08 sumarioan auzipetuei kartzela zigorrak ez

Mikel Garaiondo, Ino Galparsoro, Aitor Arantzabal eta Mikel Zubimendi 04/08 sumarioan inputatutako debagoienarrek jakin zuten ez zirela kartzelara joango. Fiskalaren proposamena onartu zuten alde guztiek eta hari esker geratu ziren kartzela zigorretik libre. "Normalizazio eta bake bidean aurrekarizatza" jo zuten auzipetuek.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

## DEBAGOIENA 2016, URTEKARIA

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredaktore burua**  
Ubane Madera.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria** Agurtzane Gaintzarain.  
**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Marta Leturia.  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Erredakzioa**  
Mirari Altube, Oihana Elortza, Xabi Urzelai, Leire Kortabarria, Ander Larrañaga, Maite Txintxurreta, Aitziber Aranburuzabala, Xabier Gorostidi, Ubane Madera.  
**Argazkiak**  
Erredakzioa, Luis Jauregi (Argazki Press), Argazki Artxiboa, Imanol Soriano, Ekaltz Filarmendi, Aritz Gordo, EITB, Jesus Maria Arzuaga funtsa (Oñatiko Udal artxiboa), Luis Mari Etxeberria.  
**Publizitatea**  
Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeeberrria.  
**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

## LAGUNTZAILEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saibilburordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen argitalpen honetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.  
HONAKO URTEKARI HONEN EDIZIOA ABENDUAREN 23AN ITXI DU GOIENAK



# 132

ONDASUN

**DEBAGOIENA MANKOMUNITATEAK, %10,71 DIRU GUTXIAGO URTERAKO**  
10,8 milioi euroko aurrekontua onartu zuen Debagoieneko Mankomunitateak, aurreko urtekoa baino %10,71 txikiagoa. Horren zergati nagusia Epeleko isurtegia zen; obra exekutatuta zegoenez, ez zen aurrekontuetan sartu.

EH Bilduren ekimenez –EAJren eta PSE-EEren onespenerekin– Jauriaritzak eskuratutako zerrendak zioen Elizak 132 ondasun zituela erregistratuta Debagoiengan.

**ATEZ ATEKOA**  
%23,53  
801 boto

**5. EDUKIONTZIA**  
%76,33  
2.600 boto

### ELGETA 'Elgetan berbetan' egitasmokoak elkarrekin ▲

Hiru mintzapraktika talde elkartzen ziren astero herrian *Elgetan berbetan* egitasmoa abian jarri zutenetik. Eta urtarrilaren 28an, lehen aldiz, talde ezberdinetako mintzalagunak elkartu ziren. Heldu zein gazte, dozena bat elkartu ziren orduan, nahiz eta hamazortzi izan guztira. Mokedutxo baten bueltan anekdota kurioso dezente kontatu zizkionten elkarri, betiere, umore ona nagusi zela eta aparteko giroan.



### ARETXABALETA Bosgarren edukiontzia izan zen nagusi galdeketa

Hondakinen gaineko galdeketa egin zuten Aretxabaletan urtarrilaren 24an eta 2.600 botorekin bosgarren edukiontzi bidezko sisteman alde agertu ziren herritarrak. Atez ateko bilketa sistematik, oster, 801 boto jaso zituen. Giro lasaian egin zen galdeketa aretxabaletarren %59,9k hartu zuen parte. Alderdiak gustura agertu ziren emaitzarekin "betiere, %80ko sailkatze-tasari eutsiz gero".

### BERGARA Nesken eskubaloi talde berria jarri zuten abian ▲

Nesken eskubaloi taldea sortu zuten berriro Bergaran. Bigarren urteko infantilen taldea 13 eta 14 urte bitarteko hamahiru neskek osatu zuten, eta Xabier Inurrietaren esanetara hasi zituzten entrenamenduak. Ligan jokatzetik ez izan arren –denboraldia hasi ostean sortu zelako–, astean birritan elkartzen ziren hurrengo denboraldia prestatzeko asmoarekin.

*Egin topa gurekin!*

OKORETEGI  
MONTE  
EZKIÑA  
ITZALA  
RUMBA  
TXOKO II

ARRASATEKO TABERNAK

# 32

URTE



**"Euskara despolitizatu ez, baina atera egin behar da konfrontazio politikotik"**

32 urteko kartzela zigorra berretsi zuen Auzitegi gorenak Beñat Aginagaldereandako, Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohia hiltzeagatik.

**ONATI KATEA-LEGAIAREN TAILER BERRIAN IZAN ZEN MAITE PEÑA**  
Desgaitasunak lanean txertatzeko Katea-Legaia taldeak Onatin ireki berri zuen tailerra bisitatu zuen Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak. Tailer ireki berria 50 lagunek ziharduten lanean. Batez ere elektronika alorrean ari ziren.

**ARRASATE "GERATZEA" JAKINARAZI ZUEN ANGER TALDEAK**  
Anger taldeak *Sute perfektua* biraren amaiera egin zuen Arrasateko gaztetxean otsailaren 13an, *Azken sute dantza* izenburuarekin. Horrekin batera, "zehaztu gabeko denbora baterako geratzea" jakinarazi zuten.

**ARRASATE KULTUROLA EKIMENA, KULTURA GUNE BERRI BATERAKO**  
Arrasateko kulturaren erreferentziako gune bihurtzeko asmoz jaino zen Kulturola ekimena, Zerrajerako erlojuaren eraikina eta Aprendices ardatz gisa hartuta. Proiektua azaltzeko lehen bileren ostean, otsailaren definitu zuten kudeaketa eredu.



### BERGARA Bergararren parte-hartzea 'La Traviata' operan

Valen Moñuxen eszena-zuzendaritza txukunarekin eta herriko ordezkari zabalarekin estreinatuta zuten hilaren 19an, Donostiako Kursaal, Kursaal Eszena eta Opus Liricaren arteko *La Traviata*-ren ekoizpena. Oraingoan, agertokian barik, argiztapen teknikarien kabinatik jarraitu zuen saioa Moñuxek, eta, detailerik galtzeko, pozik zegoen emaitzarekin. Operako dekoratuak ere Bergaran eginak izan ziren.



### ANTZUOLA, BERGARA Ezponda egin ondoren, errepidearen obrak zehaztuta ▲

Antzuola eta Bergara artean jausitako ezponda konpontzen bukatu zuten otsail bukaeran, 2,1 milioiko kostuarekin. Antzuola-Bergara errepidea egiteko lanak urte amaierarako iragarri zituen Aldundiak.



### ARRASATE Garbiketa ordenantzaren aurka hainbat eragile ▲

EAJk eta PSE-EEK onartu nahi zuten garbiketa ordenantza "beste era batera lantzeko" eskatu zuten EH Bildu, Baleike, Irabazi eta beste eragile batzuek, "adierazpen askatasuna urratzen" zuelako.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

2017a oparotasunez beteta izatea opa dizugu. Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskeintzen segituko dugulakoan.

Aretxabaletako Industrialdea F-04  
943 791 844  
info@eguzkigraf.com

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

liburuxkak  
jai egitarauak  
pegatinak  
kartelak  
tarjetak  
etiketak

**MARTIN** frutategia  
Frutan eta txarkuterian  
espezialista  
Urte berri on!

San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

**ARRASATE**  
**AMAI ALBESIN DISEINU BAT, GOYA SARIETAN**


Amia Albes diseinatzaile arrasatearrak egindako soineko batekin joan zen Nagore Ezeiza donostiarra Goya sari banaketa ekitaldira. *Hijos de la tierra* film laburrean kamerari laguntzaile lanak egin zituen Ezeizak. Film horrek saria irabazi zuen, gainera.

**ARETXABAETA**  
**AZBE LANTEGIAREN LEKUAN, EROSKI SUPERMERKATUA**

Azbe enpresaren lantegi zaharra dagoen lekuan, supermerkatua egingo zuela jakinarazi zuen Eroskik. 2.000.000 euroko inbertsioa egingo zuen eta 35 lanpostu sortuko zituen. Udalak asmoa begi onez ikusten zuela esan zuen.

**ANTZUOLA**  
**IRAETAKO TUNELA IXTEA ERABAKI ZUEN ALDUNDIAK**

Aldundiak iragarri zuen guztiz itxiko zuela bidegorriko Iraetako tunela. "Arrazoa segurtasuna da, ez dagoelako garbi zelan dagoen. Itxi egingo dute, eta azterketa geologikoa egin ere bai; bai tunel horretan eta baita besteetan ere", esan zuen alkateak.



**ARRASATE**  
**ISTAR DAPENA ERABAKI EGIN DUEN MALEN RUIZ DE AZUA ATLETAK**

5,05 metroko saltoa egin zuen Istar Dapenak Gipuzkoako Txapelketan, bere marka eta Jonathan Perezena onduta. Hark eta Ruiz de Azua urrea lortu zuten.

**ESKORIATZA**  
**KULTURA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI DESBERDINAK**

Kultur jardueretarako diru laguntzak emateko baldintzak aldatzea onartu zuen, EAJren eta Elizateen aldeko botoarekin, EH Bilduren aurkakoarekin eta Irabaziren abstentzio batekin. Alkateak esan zuen horrela "abanikoa zabaltzen" zela.



**BERGARA**  
**Miguel Altuna berria eraikitzen hasi ziren ▲**

Obrak otsailaren hasita, 2017-2018 ikasturterako eginda izan nahi zuten arduradunek Miguel Altuna Institutuaren bi eraikin berriak. Zazpi milioi pasa inbertitu du Eusko Jaurlaritzak instalazio berri horietan. Herri iparraldeko sarreran egongo dira, Candy parean.

**OÑATI**  
**Gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketa ▼**

Euskal Herriko gaztetxeetako eta gazte batzarretako 100 bat lagun elkartu ziren Oñatin otsailaren 19 eta 20an, erakunde horien gaineko hausnarketa egiteko. Hego Euskal Herri osotik etorri ziren. Parte-hartzaileen egonaldia antolatzen 30 bat lagun ibili ziren lanean. Besteak beste, Bilbon emakumeen etxe okupatuaren esperientzia partekatu zuten eta asanbladen funtzionamenduz eztabaidatu zuten. Kale-agerraldia eta kontzertuak ere izan ziren.



**DEBAGOIENA**  
**Herri galdeketa deitu zuen Erain Debagoienak ◀**

Zuk erabaki leloarekin Erain Debagoienak 150 bat herritar elkartu zituen otsailaren 27an, Arrasateko Kulturaren "erabakitzeko ordua" heldua zela ozen esateko. Herri galdeketa noiz izango zen zehaztu zuten: 2016ko ekainaren 12an. Eta ze galderari erantzun zioten 16 urtetik gorako debagoiendarrek: *Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?* Prozesuarekiko atxikipenen berri ere eman zuten.



**BERGARA**  
**CANDY HOOVERREK, BERGARAKO PABILIOAREN ETA LANTEGIAREN JABEAK, LANTEGIKO MATERIALA SALGAI IPINI ZITUZTEN**

Candy-Hooverrek, Bergarako pabilioaren eta lantegiaren jabeak, lantegiko materiala salgai ipini zuen. Helburua zen urtea bukatu baino lehen dena hutsik uztea. Beste enpresa bat sortzeko ahaleginek porrot egin ondoren hasi zen prozesu hori.

**ARETXABAETA**  
**SUPERMERKATU BERRIA EGITEKO ASMOA DU EROSKIK**

Aretxabaetan, Azbe enpresaren lantegi zaharra dagoen lekuan, supermerkatua egingo duela jakinarazi zuen Eroskik. 2.000.000 euroko inbertsioa egin eta 35 lanpostu sortuko zituela gaineratu zuen. Udalak begi onez ikusi zuen proiektua.



**ARAMAIA**  
**Lur-jausia AHTren euste-horma baten ▼**

AHTrako euste-horma batean lur-jausia gertatu zen otsailaren 19an Untzillan. Bertan dagoen Lugarategi baserriko bizilaguna ohartu zuen euste-hormak eusten dituen bere lurretan pitzadurak zeudela. Eta 23:00etan hasi zen lurra jausten. Etxea ebakuatu egin zuten.



**BERGARA**  
**'Adiemus Colores' ikuskizun arrakastatsua ◀**

Bergarako Orfeoak, Orfeoi Gazteak eta Gamera Orkestrak kolorez betetako ikuskizuna eskaini zuten otsaileko azken asteburuan: *Adiemus Colores*. 135 lagunek osatutako talde handiak tango, sanba, bossa nova eta beste doinu asko eskaini zituen, Aitor Biain oñatiarraren zuzendaritzapean. Lau piezatan, Camden Town Akademiako dantzariak izan zituzten lagun.



**OÑATI**  
**Txirrindularitzak 50 urte, eta atletak, Espainiakora ▲**

Aloña Mendi kirol elkarteko Txirrindulari sailak 50 urte egin zituen 2016an eta ospakizunen berri eman zuten otsail bukaeran. Bestalde, atletak Espainiakora Txapelketara sailkatu ziren, Euskadikoan 2. geratuta.



**ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:**

**BALORAZIO PACKA:**  
Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera balorazio-rako portzentaje bereziak ere.

**ASISTENTZIA PACKA**  
Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

**FLEXIFRANKIZIA**  
Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

**BABES PACKA:**  
Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

**GAINERA...**  
Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

**Urte Berri On!**

**ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urutia Negueruola

Montxon kalea 5 behea / 20560 / OÑATI  
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20  
Faxa: 943 78 31 36

**ileak**  
mari karmen ile apaindegia

**Gabon zoriontsuak izan!**

san lorentzo 9 a behea  
tel.: 943 72 60 46  
OÑATI

**ALDEDI**

Urte berri on!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**BERGARA**  
**ESKOLA BIDEA PROIEKTUA JARRI ZUTEN MARTXAN IKASTETXEETAN**

Ikastetxeetako joan-etorriak modu ez motorizatuan egiteko ekimenari Bagabiltz izena jarri zioten eta jasagarritasuna, mugikortasuna eta osasuna hartu zituen kontuan. Herriko hiru ikastetxeek egin zuten bat udalak proposatutako proiektuarekin.

**OÑATI**  
**LUR AZPIKO BI APARKALEKUETAN TAO SISTEMA EZARRI ZUTEN**

Kiroldegiko eta Kalegoieneko lur azpiko bi aparkalekuetan jarri zuten TAO sistema bera: lehen bi orduak doan eta hirugarrenetik aurrera 0,02 euro minutuko, 1,20 euro ordua. Udalak bonuak atera zituen gura duen herritarrak eska ditzan.

**ARAMAIO**  
**ARBEL KOOPERATIBA BERRITUA INAUGURATU ZUTEN**

Baserritarrei ematen die zerbitzua Arbel Kooperatibak, eta berritu egin zuten, produktu berriak eskaini eta ahalik eta zerbitzurik onena emateko. Orduetara ere zabaldu zuten. 1981ean sortu zuten Arbel Kooperatiba.

**ARETXABAETA**  
**LUZIAK IZAN ZIREN ARLABANEN ETA BERGARAKO ARITZETAN**

Euriteek lur-jausiak sortu zituzten Aretxabaetan eta Arlabanen eta arazoak sortu zituzten errepideetan. Ibaiek gainezka egiteko zorian izan ziren zenbait gunetan. Bergarako Aritzetan hiru etxeetako sarrera-irteerak itxi zituzten luiziak.

**ANTZUOLA**  
**SARIAK IRABAZI ZITUZTEN BAILARAKO HAINBAT ENPRESAK**

Gipuzkoako Bazkundeak Gipuzkoako Enpresaren Sarien 24. edizioan emandako lau sarieratik bana eskuratu zuten Goizperrek eta Ternua Group-ek. Rabattery enpresak, berriz, Europa mailako bi ingurumen sari irabazi zituen.


**ARAMAIO**  
**Arabako Haur Abesbatza Txikien Egunean, 110 ume**

Arabako Haur Abesbatza Txikien Eguna Aramaion ospatu zuten martxoaren 12an. Hain zuten ere, herriko Papargorri abesbatzako kideek Laudioako ArteOn eta Gasteizko Edruna, Olabide, Samaniego eta Marianistak ikastetxeetako abesbatzak izan zituzten gonbidatu. 110 neska-mutikok elkarrekin abestu zuten lepo beteta zegoen kiroldegian. Zortzi kantu abestu zituzten kide guztiek elkarrekin.


**ARRASATE**  
**Zabortearen aurkako plataforma eratu zuten**

Debagoiena eredu. Zaborteagirik ez izeneko plataforma sortu zuten martxoaren 1ean. Zehaztutako hainbat ekintzaren berri eman zuten, eta euren nahia zer den adierazi: ez dutela zabortege nahasi bat onartuko eta horretarako euren esku dagoen guztia egingo dutela. Azpeitiko zabortegea itxi ostein Aldundiaren aukeretako bat Epeleko planta izatearekin ados ez daudela esan zuten, "bereiziki Debagoiena delako birziklatze tasa handiena duen eskualdea".

**ESKORITATZA**  
**MUn, bost hiriburutako alkateak eta euskara**

Euskararekiko harremana eta etorkizuneko erronka izeneko mahai-inguruan hartu zuten parte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako eta Mauleko alkateak Eskoriatzian, MUko Huhezi fakultatean. Hiri guztietan euskararen ezagutzak aurrera egin duela aipatu zuten Aburto, Asironek, Etxebestek, Goiak eta Urtaranek, "baina erabilerak ez hainbeste". Mahai-ingurua historikoa izan zen eta jakin-min handia piztu zuten. Jende asko joan zen.


**ARETXABAETA**  
**Jendetsua eta giro onekoa izan zen Aresko martxa**

400 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte Aresko Saskibaloi Eskolak antolatutako berdintasunaren aldeko Aresko martxan. Parte-hartzaile gehienak elastiko arrosak soinean zizutela abiatu ziren Aretxabaletako plazatik eta 40 minuturen bueltan heldu ziren helmugara, Eskoriatzako plazara. Urteetan kirolari lotuta egondako bi emakume omendu zituzten: Matilde Garai eta Garbiñe Uribe.


**OÑATI**  
**Kale garbiketa zerbitzua Udalak kudeatzeko erabakia**

Kale garbiketa zerbitzua aurrerantzean udalak kudeatuko zuela erabaki zuten udalbatzak. EAJk kontra bozkatu zuten, eta zerbitzua berriz deialdi publikoz esleitzea proposatu.

**BERGARA**  
**EMON TALDEAK EGIN ZUEN OPORRAK BAKEAN-EKO KANTUA**

Oporrak Bakean egitasmoa abestia Bergarako Emon taldeak egin zuten. *Basamortutik Euskal Herrira, Saharatik gure etxera* zioen kantua. Abestiaren letra Xabier Euzkitzek egin zuten, eta musika Emon taldeak jarri. Bideoklipa ere egin zuten.


**ELGETA**  
**Emakumeen argazkiak eta testigantzak**

Alicia Gartziak Elgetako emakumeen argazki sorta egin zuten eta erakusketak ikusmin handia sortu zuten herrian. Elgetan bizi diren bost amamak euren bizitza kontatu zuten, gainera, *Makina bat lan* erreportajearen, Emakumeen Eguna dela-eta, propio prestatua. Argazki erakusketatik tiraka, Mertxe Elortzaren, Benedikta Bergaretxeren, Miren Villarren, Josefina Sarasuaren eta Maria Jesus Leteren testigantzak jaso ziren ikus-entzunezkoan.


**ELGETA**  
**Espaloia ekintza zehatzetarako zabalik**


Espaloia Kafe Antzokiko alokairudunak kontratua etetea eskara egin zion Udalari, eta, hala, ekitaldi bat programatuta dagoenean bakarrik zabaltzeko erabakia hartu zuten martxoaren bigarren hamabostaldian. Kudeatzaile berria aukeratzeko prozesua ireki zen eta abenduan bukatu zen: Eibariko Xabier Ulazia izango zen kudeatzailea. Abenduaren 20an sinatu zuten Ulaziak eta alkateak kudeaketarako baldintzen orria.



**BA BEHI-ALDE**  
**ERKOP**

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**  
 Olaeta-Aramaio (Araba)  
**Zuzenbide postala**  
 Apartado 44  
 20500 Arrasate

*urte berri on!*



Tel.: 945 45 01 00  
 Faxe: 945 45 03 15

**TXANTXIKU**  
**ELEKTRIZITATEA**  
 Julian Uribeetxeberria Olalde  
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI  
 Tel.: 943 78 01 54

*Zorionak eta Urte berri on!*



**MUJIKA HARATEGIA**

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



**Jai Zoriontsuak!**



Zer emateko prest zaude?  
 Eta zer jaso nahi duzu?

**INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA**  
 EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

www.argia.eus/eginargiako #ArgiaJendea



### ARRASATE ARIZMENDIARRIETA PLAZA IZENA JARRI ZIOTEN LAUBIDE PLAZARI

Laubide plaza zenari izena aldatu eta Jose Maria Arizmendiarrrieta jarri zioten haren jaiotzaren 100. urteurreneko ospakizunak borobiltzeko. Arizmendiarrrieta Lagunak Elkarteak antolatuta, apirilaren 25ean egin zuten inauguratze ekitaldia.

# 25

URTE



BERGARA  
IÑIGO  
LOIOLA  
KOMISARIOA

"Euskadiko delinkuentzia indize baxuenak ditugu Deba-Urola barrutian"

Apirilaren 9an ospatu zuten AGAKOren 25. urteurrena Arrasaten. Herria girotu zuten goiz eta arratsalde, eta 300 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzeko.

### BERGARA

#### Kilometroak bideoklipa herritarrek batera ▶▶▶

Herriarren laguntzarekin grabatu zuten Aranzadi ikastolakoek Kilometroak 2016 iragartzeko erabiliko zen bideoklipa. Apirilaren 29an eta 30an hartu zituzten irudiak Bergarako zenbait lekutan, erraldioak eta buruhandiak lagun zituztela. Gogotik jardun zuten guztiek, eta bideo koloretsu eta alaia izan zen emaitza.

Taila eskolakoek, berriz, 100 kiloko pisua zuen eta ia bi metro zituen Demasa logoa egin zuten (goiko argazkian).



### ARRASATE

#### MU ikerkuntzan eraginkorren artean ▶

Ikerkuntzaren alorrean mundu mailan eragin handiena duten Hego Euskal Herriko eta Espainiako hiri-unibertsitateetako bat izan zen Mondragon Unibertsitatea, Nebrijako Unibertsitatearekin eta Pompeu Fabra Unibertsitatearekin batera. Hala izendatu zuten U-Multirank sailkapenaren arabera eta A kalifikazioa eman zioten, guztietan altuena. Horrela, Espainiako lehenengoan artean zegoen, ezagutza-transferentziaren kategorian.



### ARRASATE

#### Antton Mendizabal 'Tonino'-ri azken agurra egin zioten ▲

Apirilaren 11n hil zen Antton Mendizabal, irakaslea, aktibista, eta talde askorekin elkarlanean jardundakoa. Aldai parkean egindako ekitaldi hunkigarrian agurtu zuten senideek, lagunak, herritarrek eta ezker abertzaleko hainbat kideak; besteak beste, Arnaldo Otegi.



ARRASATE  
MIGEL  
ETZAGIBEL  
AZKEN ERTZAÑA

1936ko Ertzaintzaren (Ertzaña) lehen promozioa kidea omendu zuten apirilaren 16an Urkullu lehendakariak. Azaroaren 14an hil zen, 97 urterekin.

### DEBAGOIENA GURE ESKU DAGO LANTALDEAK EKAINEN GALDEKETA GERTATZEN

Gure Esku Dagoko kideek eskualdeko udalerrietan ekaineko herri galdeketa begira sinadurak batzen eta lantaldeak sortzen; herri handietan zein auzo txikietan: Leintz Gatzagatik hasi, Aramaiotik pasatu eta Osintxura arte.



BERGARA  
BEÑAT  
REZUSTA  
PILOTARIA

Eskuz Binakako Txapelketako finala jokatu zuen Irujorekin bikotekide, baina min hartu zuen Irujok, eta bertan behera utzi zuten norgehiagoka.

### ELGETA

#### Erresistentziaren Egunean 41 emakumeri aitortza ▶▶▶

Apirilaren 24an bete ziren 79 urte Intxortako frontea jausi zela Elgetan, eta, hori gogoan, 41 emakumeri aitortza egin zioten ekitaldi hunkigarrian. Omenduek (azpian) Iñigo Arregi artista arrasatearren *Egiaren iturria* izeneko eskultura jaso zuten. Aitortza gisa, gainera, Emakume Erresistenten plaza inauguratu zuten (eskuman). Mauro Saravia argazkilaria txiletarrak, ostera, 55 gudari euskaldunen argazkiak jaso zituen *Azken batailoia* erakusketan (goian).



### ESKORIATZA


#### Emakumeen Birako lehen etapa Eskoriatzan jokatu zen ▲

Apirilaren 13tik 17ra bitartean jokatu zen Emakumeen Bira lasterketak munduko txirrindulari onenak elkartu zituen Eskoriatzan. Debagoienean jardun zuten lasterka, eta Emma Johansson suediarrek irabazi zuen etapa; lehenengoa, hain zuzen ere.

**ARETXARGI**  
aretxargi@aretxargi.com  
BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA  
☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032  
INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

**Zorionak eta urte berri on!**



☎ 943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

**Zorionak eta urte berri on!**  
Zure konfiantzako garbiketa enpresa

**Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:**

- Bulego eta lokalak
- Lokal komertzialak, azalera handiko salto-kiak, hotelak eta enpresak

- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

- Iargarai 24  
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:  
**San Lorenzo pol. 9 • Amillaga 18**  
Tel.: 943 76 99 34



BERGARA

**Zorionak eta urte berri on!**

**OÑATI**  
**LAN ONAREN ZIURTAGIRIA JASO ZUEN OÑATIKO ANBULATORIOAK**

Hiru esparru aztertu zituzten Oñatiko anbulatorioak: arretaren kalitatea, gaixoa izatea ardatz nagusi eta gaixoaren segurtasuna. Horiek zorrotz ebaluatu ondoren lan onaren ziurtagiria jaso zuten, eta hori lortzen Osakidetzako lehen zentroa izan zen.

**ARETXABALETA**  
**'ATXABALTA MUGI' EGITASMOA JARDUERA FISIKOA BULTZATZEKO**

Herritarren artean jarduera fisikoa bultzatzea helburu zuen *Atxabalta Mugi* egitasmoa aurkeztu zuten apirilaren 12an. Jaurilaritzak, Debagoieneko ospitaleak eta Udalak egin zuten bat eta elkarlanean jarduteko konpromisoa hartu.



**ARRASATE**  
**JOSU TENA**  
ZALDIBARKO FUTBITO  
TXAPELKETAKO  
ANTOLATZAILEA

**"Hamar talde dituen txapelketa ezin da Zaldibar deitu; azken urtea izango da"**



**ARAMAIO**  
**BIZENTE**  
**GOIKOETXEA**  
MUSIKARIA

Apaiz eta musikariaren heriotzaren 100. urteurrenean urte osora luzatuko ziren ekitaldiak hasi zituzten Aramaion, apirilaren 16an.

**BERGARA**  
**ON MIGUEL ALTUNA IRAKASLEA GOGOAN HAREN MENDEURRENEAN**

Apirilaren 24an bete ziren 100 urte On Miguel Altuna abade eta irakaslea jaio zela, eta hura omendu zuten Bergarako eskolaren eta herriaren alde egindako lanagatik. Hainbat lagunek, Juan Gallastegik eta Xabier Reteigik besteak beste, mahai-inguru eskaini zioten.

**ARRASATE**  
**700 BAZKIDEREKIN OSPATU ZUEN LKS-K 25. URTEURRENA**

Ospakizun handia egin zuten LKS S. Coop. eta LKS Ingeniaritza kooperatibek Tabakalera, 25. urteurrenaren harira. 700 bazkide batu ziren. Baita Iñigo Urkullu lehendakaria, Markel Olano ahaldu nagusia eta Donostiako alkate Eneko Goia ere.

**ARRASATE**  
**OINTXE NESKAK, GIPUZKOAKO TXAPELDUN SASKIBALOIAN**

Ointxe saskibaloit taldeko infantil mailako neskek errendimenduzko infantiletako Gipuzkoako txapelkun bilakatu ziren. Hondarribiaren aurka Donostian jokatuak finalean 30-36 irabazi ondoren lortu zuten titulu.

**BERGARA**  
**ESPOLOIKO KIOSKO ZAHARRA BOTA EGIN ZUTEN**

Espoloiako kiosko zaharra bota egin zuten, oso egoera kaskarrean zegoelako. Maiatzaren 10ean izan zen hori. Espoloiako jolasparkea, kioskoa eta urbanizazioa berraztertzen hasitakoan konturatu zen Udala hura eraisteko beharraz.

**BERGARA**  
**INGURUMENAREN ALDEKO TXIRRINKA MARTXA EGIN ZUTEN**

Txirrinka izeneko bizikleta martxa egin zuten maiatzaren 20tik 22ra, *Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu! AHT eta proiektu txikitzaileak borrokatu!* lelopean. Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, AHTren Bergarako korapiloan elkartu ziren.



**ANTZUOLA**  
**AITOR**  
**MENDIZABAL**  
PILOTARIA

Gorkari 14-22 irabazita, promozio mailako Buruz Buruko txapela jantzi zuen Iruñean Aitor Mendizabalek. Maiatzaren 21ean jokatu zen norgehiagoka.

**ESKORIATZA/BERGARA**

**Edukiontzia itzuli ziren herrietako kaleetara ▶**

Apirilaren 18tik 22ra bitarteko astean jarri zituzten edukiontzia Bergaran eta Eskoriatzan, herri-tarrak edukiontzia bidezko hondakin bilketaren alde agertu ostean 2015eko azaroan egindako galdaketan. Hondakin organikoaren eta errefusaren edukiontzia zabaltzeko txartelak banatu zituzten herritarren artean, eta ondoren zintzilikarioak kendu. Lehen egunak "normaltasunez" joan zirela adierazi zuten Udala ordezkariek.



**ARRASATE**

**Jokin Zaitegi sariketa berriro martxan ▶**

Jokin Zaitegi itzulpen beka lau urtez bermatzeko hitzarmena sinatu zuten AEDK eta Arrasate Udalak apirilaren 7an. Literatura Nobel saridunen obra euskaratzea helburu duen sariketa 2012. urtean antolatu zuen azkeneko AED elkartek Elkar argitaletxearekin elkarlanean. Svetlana Aleksievitx idazle bielorusiarraren *Gerrak ez du emakume aurpegia* liburua itzuli beharko zuela irabazleak jakinarazi zuten.



**BERGARA**

**Osintxuko Musiraka dantza taldearen agurra ▶**

Hamaika urteko ibilbidea egin ondoren agur esan zuen Osintxuko Musiraka dantza taldeak. Jendetz lepo betetako Udala pilotalekuan sekulako ikuskizuna eskaini zuten, Bergarako Orkestrako Ganbera talderen laguntzarekin, apirilaren 23an. Sorreratik irakasle jardundako Amaia Agirrek jakinarazi zuen "adinean aurrera joateak" zeresan handia izan zuela erabakia hartzeko orduan. "Penatuta", baina "ibilbide aberatsa izandako poztasunarekin" agurtu ziren.



**ELGETA**

**780.000 euroko kalte-ordaina familia bati**

Aho batez onartu zuen Elgetako udalbatzak apirilaren 26an egindako osoko bilkuran istripu batean kaltetutako familia bati 780.000 euroko kalte-ordaina aitortzea. Udala Gobernu eta familia, kalte-ordainaren gaineko akordio batera heldu ziren, eta udalbatzak aho batez babestu zuen akordio hori. Hamar urteko epean ordaintzea adostu zuten. 2009ko Ferixa Nagusiko jaietako domekan gertatu zen istripua Elgetan.

**DEBAGOIENA**

**Fagor Taldeak bazkideen erabakia berretsi zuen**

Estatutu sozialak aldatzea onartu zuten Fagor Taldeko bazkideek martxoaren 17an, erreferendumean, eta hori maiatzeko kongresuan berretsi zuen Fagor S. Coop-ek. Etorrizko proiektuaren alde egin zuen horrela Fagor Taldeak, hausnarketa baten ondoren egindako marko teorikoa onartu baitzuten bazkideek eta onespenez hori berretsi zuen Fagorren kongresuak. Aldaketak estatutu sozialaren eta erregelamenduetan isla izatea onartu zen.

**ARRASATE**

**Hondakinen kudeaketan, ibarreko ereduaren alde ▶**

Debagoieneko Ituna aurkeztu zuen *Debagoiena Eredua, Zabor-girik Ez!* plataformak maiatzaren 24an Portaloian. Hondakinen kudeaketan eskualdea "eredu" zela esan eta eredu hori Gipuzkoara eta Euskal Herri osoa zabaltzeko eskatu zuten; baita zabor-girik ez egiteko eskatu ere. Ingurumen Foru Sailak lurraldeko zaborrak Epeleko konpostaje planta berrira ekartzea aztertzen zebiltzala esan ondoren egin zuen plataformak bere agerraldia.



**OÑATI**

**Herri antolamendurako aholku batzordea ◀**

Herri antolamendurako aholku batzordea sortu zuen Udalak, eta hil hasieran aurkeztu zuen jendaurrean. Helburua zen batzorde horrek aholkuak ematea Udala Hirigintza arduraduneri herriaren diseinu orokorrean, eta, plan orokorrak ukitzen zituen eragileekin, plan hori egitea. Oñatiko 25 elkarte inguruk parte hartuko zutela eta kontseilua bera herriko eragile ugari osatuko zutela esan zuen alkate Mikel Biainek aurkezpenean.



**BERGARA**

**Sute larria gertatu zen Bergarako batzokian ◀**

Sute batek kalte handiak egin zituen Bergarako batzokian maiatzaren 19an, gauerdian. Bergarako Udaltzaingoa adierazi zuenez, sua lehen solairuan hasi zen, EAJk bulego moduan erabiltzen zuten geletako baten. Bigarren eta hirugarren solairuri eragin zien suteak. Ez, ordea, teilatuari. Kalte egin zuen ez bakarrik suak, baizik eta baita suhiltzaileek hura itzaltzeko erabili zuten urak ere; hain zuzen, beheko solairua kaltetu zuen urak.

**=KANPAZAR**

*Zorionak eta urte berri on!*

Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE  
Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84

**Gabilondo - Arregi**

**harategia - urdaitegia**

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

**KALEBAREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA**

**Gabon zoriontsuak eta Urte berri on guztioi!**

*autopullmans*

**Araba**

**Zorionak eta urte berri on!**

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52  
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

**UGARTE**  
AROZTEGIA - ALTZARIAK

**GABON JAI ZORIONTSUAK!**

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**AROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak • Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurira  
Ateak • Eskailerrak • Leihoak •  
Tarimak • Egur lanak

**ARRASATE**  
**HERRI KOMUNIKABIDEAK,**  
**NAZIOARTEKO JARDUNALDIETAN**

Herri komunikabideen funtzioa aztergai izan zuten maiatz bukaeran nazioarteko jardunaldi batzuetan. Mugarik Gabek, Elkarheitzenez eta Goienak antolatuta. Komunikabide indigenak eta *mass media*-k ere aztertu zituzten.



**ARETXABALETA**  
**FELIX**  
**KEREJETA**  
INGENIARIA

Copreciko Felix Kerejetari urteko asmatzaile onenaren saria eman zion Galbaianek, Euskadiko Jabetza Industrialaren Erakundeak.

**ARRASATE**  
**DRAGOI GIMNASIA TALDEA,**  
**ESPAINIAKO TXAPELKETAN**

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko neskek Espainiako aerobik txapelketan lehiatu ziren apirilaren 30 eta maiatzaren 1ean. Saiklatzea "lorpen handi" gisa definitu zuten taldeko arduradunek. Mundu mailako gimnastekin aritu ziren.



**DEBAGOIENA**

**Galdeketa aldeko hainbat ekitaldi ▶▶**

Erabakitze eskubidearen gaineko herri galdeketa egunez aldatu zuen Erainek; ekainaren 12an egitekoa zen eta ekainaren 5era pasatu zuten. Erabakitze eskubidearen aldeko ekimen ugari egiten segitu zuten maiatzean; tartean, *lipdub*-a grabatu zuten Bergaran, bizikleta martxa egin zuten Urkulura, Elosuan argazki erraldoia atera zuten eta, galdeketa bultzatutako sinadura bilketan, bi hilabetean 9.139 sinadura lortu zituztela jakinarazi zuten.



**BERGARA**

**Udalak eta kirol elkarteek Rezusta omendu zuten ▲**

Maiatzaren 8an, domeka, Aspe pilota enpresak Bergarako pilotalekuan antolatutako jaialdi profesionalen Beñat Rezustari omenaldia egin zioten Udalak eta herriko kirol elkarteek, egin zuten denboraldiarengatik eta Irujorekin batera finalera iritsi zelako. Txistulariek, Bergarako pilota eskolako gaztetxoek, dantzariak, alkate Elena Letek eta Kirol zinegotzi Igor Oiarbidek, Reyes Azkoitiak eta Iñigo Zaitetik hartu zuten parte, besteak beste.



**BERGARA**

**Demasa Jaialdia, Kilometroen abestia aurkezteko ▶▶**

Maiatzaren 21ean, Demasa Jaialdia egin zuten, Kilometroetako kantua aurkezteko. Ordubetek pasa irauin zuten ikuskizunean, erritmo bizian, dantza, musika, artea, akrobazia, magia... bata bestearen atzetik agertu ziren, umorearen laguntzarekin eta irudiz apaindurik. Amaiera borobila izan zuten, gainera, Emon taldearekin. Bukaeran, jendea gustura irten zen ikuskizunetik.



**50**  
URTE

Mende erdia ospatzen hasi zen Oñati Abesbatza maiatz bukaeran. Kontzertu berezi bat, erakusketa bat eta liburu bat prestatu zituzten, besteak beste.

**BERGARA**  
**AITOR**  
**JASO**  
ERREKORTADOREA

Bost uztai behiaren adarrean sartuta, Euskadiko errektadore txapelkun bilakatu zen Aitor Jaso errektadorearen eta behi suhar onenaren Euskadiko txapelketan.

**25**  
URTE

Gorlako auto igorak 25. urtea egin du. Aurtengo lasterketa maiatzaren 7an jokatu zen, eta 70 pilotu baino gehiagok hartu zuten irteera.



**ARETXABALETA**

**Karmele Igartua Beka,**  
**aurten hitzarmenarekin ◀**

Karmele Igartua Beka aurkeztu zuten maiatzaren 28an; aurten, lehen aldiz Aretxabaletako Udalak eta Idazle Eskolak hitzarmena sinatu dute, eta ondorengo lau urtetarako 4.000 euroko laguntza jasoko dute eskolakoek, bekarri bultzada emateko.

Aurten, seigarren aldiz deitu zen Aretxabaletako poeta zenaren izena daraman beka. Igartua Idazle Eskolako ikaslea zen eta, hil zenean, haren izena ipini zioten lehenik ere ematen zen bekarri.



**ARRASATE**

**Zaleek bultzatuta, Mondra Ohorezko Erregionalerak ▲**

Maiatzaren 28ko partiduan, Mondrak 2-1 irabazi zion Sanpedrotarrak taldeari, eta emaitza horrekin zuzenean igo zen mailaz, igoera fasea irabazi ostean. Mojategi goraino bete zen zuri-moreak bertatik bertara ikusteko, eta, partidua tratatuta hasi bazuten ere, Pasaiaiko taldea ondo menderatu zuten. Horrenbestez, Ohorezko Erregionalean dira arrasatearrak.

Etxeko txikientzako marrazkiak, jolasak... 'Puntua' aldizkariarekin astero

2017an, *Puntua* aldizkarian, txikientzako jolasak, marrazkiak eta halako edukiak jasoko dira astero, Handitzen, handitzen atalean. 2017an *Puntua* etxean jaso nahi baduzu, egin zaitez Goiena Klubeko bazkide. 55 euro dira bakarrik eta beste hainbat abantaila izango dituzu: zozketan parte hartzeko aukera, deskontua...  
Deitu: 943 25 05 05



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

**Inork ez daki zaintzen zer bait,**  
**sortu duenak baino hobeto**

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- Gas-galdararen urteko azterketa.
- Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.
- Eta hemendik aurrera, **zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.**

Sematec Guipúzcoa  
**Zerbitzu Tekniko Ofiziala**  
943 76 06 61  
www.guipuzcoa.saunierduval.es

ERABATEKO estaldura  
**15**  
urtetan



**Saunier Duval**





**ARRASATE**  
**DEBAGOIENA ZUTIK-EK DEITUTA KANPALDIA EGIN ZUTEN**  
*Ustelak lurpera, bizitza da handiena* lelopean, errauste plantaren aurkako kanpaldia egin zuten Arrasateko Nafarroa etorbidean, Mankomunitatearen aurrean. Ekainaren 20tik 22ra elkartu ziren, Debagoiena Zutik mugimenduak deituta.

25 URTE



**BERGARA**  
**VICTORIANO GALLASTEGI ETA ISABEL SALUD**  
 SENATARIA ETA DIPUTATUA

Arrasateko Trikitixa Eskolak 25. urteurrenko ekitaldiak hasi zituen, eta irailean borobildu; inbutu preziatua eman zion, orduan, Maritxu Kajoi Komisiñuak.

Senaturako hautatu zuten EAJko Victoriano Gallastegi (urtarrilean ere hautatu zuten), eta Kongresurako, Elkarrekin Ahal Duguko Isabel Salud.

DEBAGOIENA

**Independentziaren gaineke galdeketa ▶**

Gure Esku Dagok –eskualdean Erain Debagoiena bitartez– deitutako herri galdeketa (goian, bozkatzen) egin zen ekainaren 5ean, jai giroan (eskuman), independentziaren gaineke galderari erantzuteko: *Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?* Debagoiengan –Aramaioko barne– 16.093 lagunek hartu zuten parte, bozkatzeko eskubidea zutenen %29,51k, eta baietza hautatu zuten 15.172 lagunek. Antolatzaileak "oso pozik" agertu ziren emaitzarekin.



**ARRASATE**  
**Aprendices eraikina eskuratu zuen Udalak ▶**

Kulturola egitasmoak aurrera egiteko ezinbestekotzat zuten Aprendices eraikina Udalaren jabetzara pasatu zen horren jabe zen Jaurlaritzako Spri erakundearekin negoziatu ondoren. Permuta bidez bereganatu zuen, eta Spri, ostera, Zalduspeko gunearen %35en jabe egin zen –Udalak gune horren %88 zuten jabetzan–. "Permuta horrek bideragarritasuna" emango ziola Kulturola egitasmoari jakinarazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.



BERGARA

**Enpresa habiaren instalazio berriak inauguratuta ▶**

Miguel Altuna Institutuko ikasleek eta ikasle ohiek erabiltzeko enpresa habia inauguratu zuten ekainaren 30ean, Amillagan. *Urrats bat* programaren bidez hogeitaz proiektuen sorreran lagundu ostean, enpresak sortzearen aldeko apustua egin zuten habiarekin.

**ARAMAIO**  
**PROMOIZO TXAPELKETAN ARAMAIOKO PILOTARIAK NAGUSI**

Aner de la Torre eta Lander Perez alebinak Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokaturako Arabako promozio txapelketan nagusi izan ziren Kanpezu irabazita. Txapelburua geratu ziren Ander Errasti eta Xabi Errasti eta Daniel Herrarte eta Markel Arriolabengoa.

**ELGETA**  
**ZUNTZ OPTIKOAK SARTZEN HASI ZIREN HAINBAT GUNETAN**

Zuntz optikoa sartzeko lanetan hasi ziren Telefonikako langileak Elgetako osasun zentroan, Herri Eskolan eta KZgunean. Lanok Eusko Jaurlaritzak esleitu zizkion Telefonitari abiadura azkarreko konektibitatea garatzeko helburuarekin hiru gune horietan.

**ESKORITATZA**  
**LEHENENGOZ ANTOLATU ZUTEN ESKORITAZKO MENDI TOURRA**

Eskoriatza Kirol Elkarteak, Udalak, Baltistan Fundazioak eta Zineuskadik antolatutako Mendi Tourra egin zuten, lehenengoz, ekainean. Hainbat film eman zituzten eta *Emakumeak Hushé Baileran* argazki erakusketan izan zen Ibarraundi museoa.

50 URTE



**BERGARA**  
**VANESSA GIMBERT**  
 ATHLETICEKO JOKALARIA

Arrasateko Udala Biblioteka publikoa 1966ko ekainaren 22an inauguratu zuten. Hainbat egoitza izan ditu 50 urtean: Garibai etxea, Monterron jauregia eta Kulturate.

Vanessa Gimbert futbol jokalaria bergararrak liga txapelketa irabazi zuen Athleticekin ekainaren 5ean. 29 partidutatik 25 irabazi zituzten eta bakarra galdu.



BERGARA

**Obra sinfonikoak harrera bikaina izan zuen ▶**

*Hizkuntza erreinu*, kilometroak 2016ko obra sinfonikoa, eskaini zuten Bergarako Udal Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak eta Aranzadiko ikasle eta irakasle taldeak, Aitor Garitano abeslariarekin batera. Maddi Iñarrak sortutako letrei eta Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak konposatutako doinuei gorputza eman zieten. Jende lepo bete zen pilotalekua ekainaren 19an, kontzertua entzuteko, eta txalo zaparradak eskaini zizkieten.



DEBAGOIENA

**Espainiako bigarren hauteskundeak sei hilabeteetan ▶**

Bigarren zuzen zuten Espainiako Gortetarako hauteskundeak eta ekainaren 26an egin ziren. Debagoiengan EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien, 9.338, baina gertutik jarraitu zioten EAJk, 9.148 botorekin eta Elkarrekin Ahal Duguk, 8.808 botorekin.

OÑATI

**Juan Carlos Elorza gogoan Euskadi-Egipto partiduan ▶**

Aloña Mendiko jokalaria eta entrenatzaile izandako Juan Carlos Elorza zenaren omenez 23 urtez azpiko Euskadi-Egipto eskubaloia partidua jokatu zuten ekainaren 10ean, Zubikoa kiroldegian. Partidua hasi aurretik, Elorzaren familiak oroigarriak jaso zituen eskubaloia federazioaren, Aloña Mendiren eta Udalaren eskutik. Egiptoko selekzioa jokalaria onenekin etorri zen, baina garaipena etxekoandako izan zen, partidua parekatua jokaturik (31-30).



ANTZUOLA

**Zirkulazio arau berria onartu zuen udalbatzak ▶**

Herri erosoak edukitzeko asmoarekin zirkulazio arau berria onartu zuen Antzuolako udalbatzak ekainaren 7an. EH Bilduko eta EAJko kideek egin zuten horren alde eta PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen. Uztailean jarri zuten indarrean.

**itesa**  
*Gabon zoriontsuak, guztioi!*

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

**Dei**  
 photography

Tel. 666 20 54 62  
 Oñati, Gipuzkoa, 20560

www.deianeunamuno.com

**ibili**

Sukaldeko tresnak eta gehiago

Hilero gure produktuen zozketa Facebook-en

Zorionak eta urte berri on!!

www.ibilimensaje.com

**E**elay

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

ELAY Taldea – Lizarragako Hiribidea, z/g – 20577 Antzuola (Gipuzkoa) – Tel.: 943 76 61 00 – Faxa: 943 76 62 62 – www.elay.eus



**ARRASATE**  
**MONDRAGON KORPORAZIOA HAZI EGIN ZEN HAINBAT ARLOTAN**  
Enpleguan, salmentetan eta emaitzetan hazi zen Mondragon Korporazioa 2015ean. Salmentak %2,8 handitu ziren eta enplegua %0,4, aurreko ekitaldian baino 1.258 langile gehiago. Eroskik, ostera, galerak izan zituen eta bazkideek euren gain hartu zuten %20.

**20**  
**URTE**



**ARRASATE**  
**UNAI URRETZO**  
ORKESTRA ZUZENDARIA

Arizmendi Ikastolak antolatutako Eskoriatzako Ferixiek 20 urte bete zituen eta Almen ikastetxeak 50 urte. Ekainaren 4an ospatu zituzten biak.

Euskadiko eta Bilboko orkestra sinfonikoetako zuzendari izendatu zuten musikari 20 urtetik gorako ibilbidia duen Arrasateko tronboi-jolea.



**ARRASATE**  
**Batzen jolas-dantza estreinatu zuten ▶▶**

Jose Ramon Vitoriak (goian, entsegua gidatzen) herriko kultur taldeekin elkarlanean sortutako Batzen jolas-dantza herrikoia estreinatu zuten sanjuanetan. Herritarrek ikusle izateari utzi eta dantzaren parte bihurtzea helburu duen dantza inklusiboa da. Elkarlan eta bizikidetzat espazio berriak irekitzeko asmoz sortu zuten Vitoriak, aurretik txerri dantza eta errementari dantza ere sortutakoak, eta harrera bikaina egin zioten arrasatearrek.



**LEINTZ GATZAGA**  
**Mundumiraren ordez Puntaik Punta jaialdia egin zen ▲**

Lehenengo Puntaik Punta jaialdia Leintz Gatzagan egin zuten, ekainaren 12an, Mundumiraren ordezkoa, hain zuzen. Naturarekin gozatu zuten mendi ibilaldiak eginda, esaterako, eta El Malick Reggae Band taldeak girotu zuten. Datorren urtean Bergaran egingo dute.

# TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean ipintzera arte dena gure esku Fabrikako preziotan

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolezio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora • BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik larunbatera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabalik

**ARETXABAETA**  
**MIKEL GALDOS GOLF JOKALARIA ESPAINIAKO TXAPELDUN**  
"Presiorik eza lagun izan dut Espainiako txapelketa irabazteko", adierazi zuen aretxabaletarrak txapela jantzi berri. Urtean Espainiako bi txapelketa antolatzen dituzte: federazioarena eta PGArena. Azken hori irabazi zuen Galdosek.

**ORATI**  
**140 KILOKO ATUNA EROSI ZUEN ARRANDEGI BATEK**  
200 lagun baino gehiagori jaten emateko hegialburra lortu zuen Oñatikiko arrandegi ezagun batek. Herrian dituzten hiru saltokietan saltzeko asmoz ekarri zuten. Tamaina handia izan arren, kalitatea berdina edo onagoa dela adierazi zuen arrandegiko jabeak.

**50**  
**URTE**



**ELGETA**  
**ADOLFO JAINAGA**  
TRIKITI IRAKASLEA

Fagor Elektronikaren fabrikak 50 urte bete zituen, eta, ospakizun modura, bisita gidatuak antolatu zituzten. Jende ugari gerturatu zen ate irekien jardunaldira.

Adolfo Jainagak 25 urte bete ditu aruten trikiti eta pandero eskolak ematen, eta uztailaren 2an jaia egin zuten haren alde. Herri bazkaria egin zuten.



**ARRASATE**  
**JON AJURIA**  
CIC ENERGIGUNEKO IKERTZAILEA

Markina-Xemeinen egindako Materialien Zientzia eta Teknologia III. Kongresuaren saritu zuten Ajuria, euskaraz egin zuten hitzaldiagatik.



**ARRASATE**  
**Atletak dominekin itzuli ziren Espainiako Txapelketatik ▶**

Espainiako Txapelketatik dominekin itzuli ziren Malen Ruiz de Azua, Istar Dapena, Jonathan Perez eta Eneko Carrascal. Ondoren, Eneko Carrascal Europako Txapelketan izan zen, Tbilisin.



**DEBAGOIENA**  
**GI-632 errepedearen aurrekontua aurkeztu zuten ▲**

Uztailaren 12an aurkeztu zuten Gipuzkoako Aldundiak GI-632 errepedearen aurrekontua; alegia, Antzuola eta Bergara lotuko dituen. 45.885.940 euroko aurrekontua aurkeztu zuten. Abenduan foru aurrekontuak onartu zituzten, eta proiektu hori da izarretako bat.

**ARRASATE**  
**Denboraldi baterako, Lezetxikiko lanak etenda ▶**

Aurten 21. urtea izan da indusketa lanok egin dituztena; Zientzia Elkarteak kideen esanetan, Gipuzkoan ez dago hainbeste urtez jarraian aztertzen ibili diren beste kobarik. Urte hauetan guztietan, 55.000 pieza inguru aurkitu dituzte.

Hala, Alvaro Arrizabalaga arkeologoak adierazi zuen indusketa lanak bertan behera utziko dituztela denboraldi baterako, laborategiko lanari lehentasuna emateko.



**DEBAGOIENA**  
**Etorbizuneko oinarriak ipini zituzten ▶**

20an egin zuten Mondragonek etorkizuneko oinarriak ipintzeko kongresua. Javier Sotilek presidente gisa egin zuen azken ekitaldi ofiziala. Kongresuak Iñigo Uzin izendatu zuen presidente; abuztuaren leian hartu zuen kargua.

Biltzarreko lehen txostenak taldea sendotzeko sustatu beharreko balioen inguruan egiten zuten gogoeta, eta bigarrenak, *Politika Sozioenpresariala 2017/2020* izenekoak, negozio lehiakor eta iraunkorrak nabarmendu zituen.



## J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

RPS: 266/13

Tel.: 943 76 56 88  
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA  
www.gorosabeldental.com

Bisita ezazu gure webgune berria: [www.gorosabeldental.com](http://www.gorosabeldental.com)

- Ortodontzia.
- Odontologia Orokorra. PADI (Osakidetza).
- Aho eta inplanteen zirugia punta puntako teknologiarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

27 URTE ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DANOI!

Zorionak eta berri on!

# GOIKOETXE HARATEGIA

# ZORIONAK eta urte berri on!

Salbador kalea 1 ELGETA  
Tel.: 943 78 82 06



**%80**

**HONDAKIN GAIKA BILDUTA**



DEBAGOIENA  
**MIKEL LEZAMIZ**  
MONDRAGON TALDEA

Datuak emateko prentsaurrekoa egin zuten Mankomunitatean, eta Unai Elkoro azaldu zuen bailarako datuek hobera egiten jarraitzen zutela.

**"Euskarak lan munduan dauka egoera zailena"**

**BERGARA**

**Seminarioari buruzko hitzarmena, sinatuta ▶**

Uztailaren 18an sinatu zuten Seminarioari buruzko hitzarmena Markel Olano diputatu nagusiak, Denis Itxaso Kultura diputatuak, Elena Lete alkateak eta Inaki Esparzak UNEDeko zuzendariak.

Hitzarmenari esker Arrizuriaga jauregia Udalarena izatera pasa zen, eta UNEDek seminarioan jarraituko zuen. Esparzak esan zuen urte askoan luzatu den korapiloa askatu zela akordio horrekin.



**ARETXABAETA**

**Argi berdea tanatorioa lekuz aldatzeko ▶**

Aretxabaletako tanatorioa lekuz aldatzeko akordioa sinatu zuten Unai Elkoro alkateak eta Aretxabaletako Tanatorioa SLko Aitor Herrera arduradunak. Hala, Nafarroa kaleko 6. eta 8. etxabeetan egin beharrean, industrialdeko F pabiloian irekitzea adostu zuten, lehen Mecaplan zegoen tokian.

Uztailaren 21ean sinatu zuten akordioa, eta bi aldeak gustura geratu ziren, lehenago epaieketak izan bazituzten ere.



**BERGARA**

**Sute batek kalteak eragin zituen Haurreskolan ◀**

Uztailaren 16ko gauerdian sortu zen sutea Bergarako Haurreskolan, udaltzaingoa azaldu zuenez.

Eskolako atzeko partean, patioan, ziburuei eta jolaserako beste elementu batzuei eman zieten su; hau da, gurata egindakoa izan zen. Ondorioz, Haurreskola barruan, pertsianak, kristalak eta ondoko gelak kiskali edo hondatu egin ziren. Argindarra eta alarma, esaterako, hondatu ziren sutearen ondorioz.



**BERGARA**

**Urretxindorrek taldearen agur arrakastatsua ◀**

Bergarako pilotalekua bete egin zen Urretxindorrek taldeari egindako omenaldian. Herriko kantu eta dantza talde ugari hartu zuten parte eta guztiak abestu edo dantzatu zituzten taldearen abestiak.

Bergarako Urretxindorrek taldea sortu zela 50 urte pasa dira eta euskal kulturaren eta kantugintzan egindako lana eskertu gura izan zitzaizkien omenaldi horrekin. "Hunkituta" amaitu zuten jaialdia.



**14.875**

**EURO**

**ARRASATE**

**VELEZ DE MENDIZABAL ZELEDON-EN LEHENDAKARI**

Jose Mari Velez de Mendizabal bazegoen jada zuzendaritza taldean lehendik, baina lehendakari Javier Camenok osasun arazo larri baten ondorioz kargua utzi behar izan zuen, eta Velez de Mendizabal aukeratu zuten hura ordezkatzeko.

Harreman GKEk 14.875 euro batu zituen Siriako herritarrei laguntzeko. Diruaz gain, oinarriko produktuen bilketa zabala egin zuten.

**DEBAGOIENA**

**BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZEN PREZIOAK GORA**

Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa %1 jaitsi zen Euskadin 2016ko bigarren hiruhilekoan. Hiru lurraldeetan jaitsi zen prezioa. Arrasaten eta Bergaran, aldiz, zerbait igo zen. Hain justu, %0,7 garestiagoa Arrasaten eta %2,3 Bergaran.



**ANTZUOLA**

**Bolatokia eta ur parke berria inauguratu zituzten ▶**

Auzolanean egindako bolatokia –gazte zein helduek– herriko jaietan inauguratu zuten. Bestalde, uztailaren 22an inauguratu zuten ur parke berria, eta ume mordoia animatu zen parkeaz gozatzera.



**OÑATI**

**Munduko inprobisatzaileak kantuan ▶▶**

Mintzolan antolatutako *Europa bat-batean* egitasmoaren barruan, –Donostia 2016 barruan– hamaika bazterretako inprobisatzaileek euren jarduna erakutsi zuten uztailaren 16an eta 17an.



**Renove Planaz gozatu!**

**Merkatuko sasi-garbitzeko makina aurreratuena lor ezazu!**

**comercial BRUNET** Zorionak guztioi!

Telleria 2, Labegaraieta, BERGARA. 943 76 31 52. www.comercialbrunet.com

**ECHO** Maquinaria Forestal y Jardineria

**RM 520 ES**  
Zilindro-bolumena: 50,20 cm<sup>3</sup>  
Pisua: 12 kilo

**1.080 €**  
BEZa barne

*Eta oparia Hiru puntako diskoa*

**Fruteria Cruz Hnos Fruitategia**

**Zorionak eta urte berri on!**

**08:30 - 20:30**  
**eguerdian zabalik!**

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92  
**BERGARA**

**Bergara • México • Group**

**metagra**

**Gabon zoriontsuak eta urte berri on!**

 <p><b>ELGETA MARINO LEJARRETA</b> TXIRRINDULARI OHIA</p>	 <p><b>BERGARA ENEKO LIZARRALDE</b> TXIRRINDULARIA</p>	 <p><b>OÑATI ARA MALIKIAN</b> BIOLIN-JOTZAILEA</p>	 <p><b>OÑATI JUANITO ZELAIA</b> ENPRESABURUA</p>	<p><b>%76,7</b> <b>BETETA</b></p>
<p><b>"Denbora bat nindoan Elgetara etorri gabe, baina topaketa hauek politik izaten dira"</b></p>	<p>Abuztu hasieran jokatu zen Burgosko Itzulian tarteko helmugak irabazi zituen Eneko Lizarralde, eta maillot urdina jantzita podiumera igo zen.</p>	<p>Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Ara Malkianek kontzertua eskaini zuen Arantzazun abuztuaren 25ean; basilika lepo bete zen.</p>	<p>Juanito Zelaia enpresaburu eta euskaltzalea abuztuaren 10ean hil zen, 96 urterekin. Cegasa enpresaren eta Euskal Fundazioaren sortzaile izan zen.</p>	<p>Urkuluko urtegia aurre-alertan egon zen abuztuaren 20an, %76,77ko betetze-maila zuen-eta, azken bost urteotako baxuena.</p>



## OÑATI

## Iazko turismo datuak hobetu dira aurtengo udan ▶

Uda ona izan zen turismo aldetik, bereziki Oñatin, non iazko uztailera eta abuztuera datuak hobetu ziren. Oñatiko turismo bulegora joaten zen jende askok bazekien bisita gidatuak eskaintzen zituztela.

## BERGARA

## Kilometroaren aldeko futbol jaia Agorrosinen ▶

Gipuzkoako futbolaren eta ikastolen festa bizi izan zen abuztuaren 10ean Agorrosin futbol zelaian. Izan ere, Aranzadi ikastolak antolatutako 2016ko Kilometroak jaialdiaren aldeko partidua jokatu zuten Realak eta Eibarrek; partidua polita eta bizia jokatu zuten, eta amaieran, banako berdinketa markagailuan, euskarak eta ikastolek irabazi zuten lagunartekoan. 1.500 lagun joan ziren Agorrosinera, aspaldian izan zen sarrerarik onena.



## BERGARA

## Sute batek kalte handiak egin zituen Irala kalean ▶

Abuztuaren 17ko goizaldean sute handia egon zen Bergarako Irala kalean. Horren ondorioz zortzi autotan, lau zuhaitzetan, kaleko zoladuretan eta etxebizitzetako balkoian izan ziren kalteak. Autoei dagokienez, hiru erabat kiskalita geratu ziren. Hiru edukiontzia ere erre ziren. Kalean ere utzi zuen arrastoa suak. Kalte horiek konpontzeko lanak irailaren 1ean hasi zituen Udalak, 10 bat egunean amaitzeko asmoarekin.




 <p><b>OÑATI 'EDER' ETA JOSE MARI BENGOA NAZIOARTEKO TXAPELKETARA</b></p>	<p><b>50</b> <b>URTE ALECOPEK</b></p>	 <p><b>BERGARA MIREIA IBABE</b> TRIKITILARIA</p>	<p><b>BERGARA EAE-KO 38 EUSKALTEGIETAKO ORDEZKARIAK BERGARAN</b></p>	 <p><b>ARRASATE AITZIBER SUAREZ</b> ARKEOLOGOA</p>
<p>Eder txakurrak eta Jose Mari Bengoa artzain oñatiarrak Gipuzkoako artzain txakur txapelketa irabazi zuten Legazpin eta irailaren 25ean Oñatin egon zen nazioarteko saikatu ziren zuzenean. Bigarren aldiz jarraian lehiatu dira biak Oñatikoan.</p>	<p>50 urte egin ditu aurtentz Alecop-ek ikasleak lan-esparruan murgiltzen laguntzen; 13.000 ikasleri lagundu die. Ospakizuna egin zuten irailaren 21ean.</p>	<p>Trikitilari gazteen lehen saria jaso zuen Ibañe pandero-joleak; azaroan, pandero-jole onenaren saria eskuratu zuen eta Eneko Arbeorekin txapelunorde izan.</p>	<p>EAEko 38 euskaltegiak irailaren 23an, curriculum bateratuaz aztertuko. Datozen ikasturtearako lan-ildo nagusiak finkatzea eta udal euskaltegi guztiek norabide berean lan egitea izan ziren gai nagusiak.</p>	<p><b>"Ez nuen espero duela 100.000 urteko ezohiko aztarnategia aurkitzea Arrasaten"</b></p>

## DEBAGOIENA


## EAJk irabazi zituen EAEko hauteskundeak ▶

Irailaren 25ean egin zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak irabazi zituen, Iñigo Urkullu lehendakari zela. Egunean 29 eserleku lortu zituen EAJk, baina posta bidezko botoek EH Bilduri eman zioten azken hori. Debagoienean, EH Bildu izan zen garaile, EAJk alde murritu zuen arren. Elkarrekin-Podemos, PSE-EE eta PP izan ziren hurrengo bozkatuenak, EAEan bezala.

## EUSKO LEGEBILTZARRA 2016



## DEBAGOIENEN 'LEGEBILTZARRA' 2016



## ARRASATE

## Heroinaren kontsumoaren igoerak kezka sortu zuen ◀

Arrasateko udal ordezkariak "oso kezkatuta" agertu ziren heroinaren kontsumoak gora egin zuelako. Udaltzain batek emandako datuek horrela baieztatu zuten eta erdiguneko botikari batek ere adierazi zuen hiesaren prebentziorako balio duten kiten salmentak gora egin duela azken urte eta erdian. Ertzaintzak eta udaltzainak "zaintzak" areagotu zituzten eta udalak ikastetxetara jo zuten gazteekin lanketa egiteko.



## LEINTZ GATZAGA

## Organikoaren kudeaketa erreferente ◀

Herrian sortutako hondakin organikoak herrian kudeatzen du Leintz Gatzagak eta eredu horixe aurkeztu zuten Belgraden egindako kongresu batean. Mundu osotik joandako ingeniariak, politikariak eta teknikariak batu zituen han. Argazkian agertzen den Joseba Sanchezek egin zuen txostena eta 72 herrialdetatik hurbildutako 1.300 parte-hartzaile baino gehiago batu ziren kongresuan aurkeztu zuten. Interesa piztu zuen ereduak nazioartean.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



## ABOKATUAK

## BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

## BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

## RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

## ATXEN MUNGIA /

## NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.eus

## AHOLKULARITZAK

## ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

## ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

## GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

## ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.eus

## ARKITEKTUAK

## BIARK ARKITEKTUAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

## URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Urangea 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**35 urte**  
tik  
gora LTZ ofizial gisa

# Etxe-Lan

**FAGOR**

Tel.: 943 79 89 97  
etxe-lan@etxe-lan.com  
Torrebaso Industrialdea, 14  
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

**GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**



# 200

ONĀTIAR FILMAN

Jai bat izan zen hasieratik bukaeraraino 2057, odisea bat kanposantuan filmaren aurrestreinaldian, irailaren 17an. 200 onĀtiarrek hartu zuten parte.

## DEBAGOIENA

### 191.000 euro baserri bideak konpontzeko ▶

Gipuzkoako Foru Aldundiak 191.000 euro pasa banatuko ditu aurtin diru laguntzatan Debagoieneko udalen artean, baserri bideak konpon ditzaten. Abuztuaren erdialdean ebatzi zuen hori Aldundiak eta irailean lanak gauzatzeko hasi ziren herrietan. Gehienak asfaltatze lanak izan ziren, baina egin zituzten kanalizazio eta seinaleztapen lanak ere. Landagipuzkoa+ proiektuaren barruan sartu zituen Aldundiak diru laguntza horiek.



## ARETXABAETA

### 'Mozkorra' tomatea ezagutzeko astea Aretxabaletan ▶

Mozkorra tomatearen inguruko astea egin zuten irailaren 21etik 24ra bitartean Aretxabaletan. Hango tomatearen berri emateko helburuarekin aste guztiko ekitaldiak antolatu zituen Debagoieneko mankomunitateak. Mozkorra-ren ezaugarrien gaineko hitzaldia eta tomatea kontserbatzen ikasteko saioa egon ziren. Ortu lehiaketa eta tomate erakusketa ere egin zituzten.



## ARETXABAETA

### Markel Uriartek Guinness errekorra egin zuen ◀▶

Markel Uriartek gurpil bakararen gainean Guinness errekorra lortu zuen irailaren 7an; 29,94 kilometro egin zituen ordubetan Donostiako Anoetako belodromoan. Kanpoan bero egin arren, aretxabaletarrak ez zuten hidratatzeko aukerarik izan ordubetan. Etxekoak, lagunak eta komunikabide asko izan zituen Uriartek alboan proba egin bitartean. Uriarteren aurretik Manuel Scheidegger suitzarrak zuen errekor hori, 25,72 kilometroekin.




Bergara Jon Mujika IGERILARIA  
Bermeotik Izaro uhartera igerian joaten azkarrena izan zen irailaren 2an (1.00.45). Saria izan zen bere pisua atunetan eta irabazlearen txapela.



## ESKORIATZA

### 'Enekoren gaztelua' ibilbidea, turismoa bultzatzeko ▶▶

Atxorrotxen egindako indusketak ikusteko ibilbidea prestatu zuten Eskoriatzan, turismoa bultzatzeko. Abuztuaren bisita gidatuak egin zituzten eta irailetik aurrera nahi duenak aukera dauka Enekoren gaztelua ibilbidea bere kabuz egiteko. Informazio panelak jarri zituzten irteera hori errazteko. Eskoriatzatik Gatzagaraino doan bidea da Enekoren gaztelua, 7,57 kilometro ditu.



## BERGARA

### 'Gindi' omendu zuten futboleko lagunek ▶▶

Gindi-ren Lagunek, Realeko betanoek, Eibarko futbol taldeak eta Bergarako Kirol Elkarteak antolatuta, omenaldi xume baina jendetsua eskaini zioten irailaren 24an bergarar Jesus Mari Larrañaga Gindi-ri. Agorrosingo futbol zelaian batu ziren Realeko jokalaririk ohiak, Eibar taldekoak eta baita, nola ez, Bergarako futbol taldeetako jokalaririk ere. Opariak, besarkadak eta futbola. 230 lagun inguru elkartu ziren Seminarioan egindako bazkarian.





## Murillo Garajea

Auto konponketak orokorrean

**Gabon zorientsuak bergarar guztioi!**

Leizeaga, 4 - BERGARA  
Tel.: 943 76 13 84

Atxabaltar danoi  
Zorionak eta urte barri on!





★

diseinua

fabrikazioa

ingeniaritza

prototipoak

kontrol tresnak

ikuspen artifiziala


2017



Ekide S.L. · Telleria kalea 2, Arrasate · 943 712543 · www.ekide.es

838

MILIOI EURO



**OÑATI**  
**JOKIN**  
**GARAI**  
KORRIKALARIA

**ELGETA**  
**HIL-KANPAIAK JOTZEKO**  
**ORDEZKO BILA HASI ZIREN**

Benedikta Bergaretxek urtetan jo ditu hil-kanpaiak Elgetan. Dio beti izan dela andrazkoari bost eta gizonezkoari zazpi. Ordezkoen bat agertzea nahiko lukeela esan zuen urriaren 30ean. "usadio zahar horrek jarraipena izan dezan".

Foru Aldundiak aurkeztutako aurrekontua. Izarretako bat zen Antzuola-Bergara errepideko lanak bukatzea; 12 milioi gehiago eman zizkion Azpiegituren Sailari.

Gorbeia, Anboto eta Aizkorri lotzen dituen Hiru Handiak lasterketa, 100 kilometrokoa, irabazi zuen oñatiarrek urriaren 15ean (11:18:25).



**OÑATI**  
**Txirringularitzaren 50 urteak, liburu batean**

Aloña Mendiko Txirringularitza Sailak 50 urte bete ditu aurten eta historia hori liburu batean jaso dute. Urriaren 28an egin zuten aurkezpena, osoko bilkuren aretoan. Lehen garaipenak, lasterketa interesgarrienak, munduko txapelketa zergatik egin zen Oñatin... Hori guztia eta gehiago jasotzen du liburua. Baita garaian garaiko protagonistei egindako elkarrizketak eta argazki asko ere.

**BERGARA**  
**VALLEKO KONDEAREN ARGAZKI**  
**ERAKUSKETA ZABALDU ZUTEN**

Valleko kondea, Ignacio Murua Baltzola, XIX. mende bukaeraren eta XX. hasieraren artean bizi izan zen. Argazkien bidez orduko bizimodua erretratatu zuen hark eta urriaren 28an erakusketa zabaldu zuten Aroztegin; haren 128 argazki egin ziren ikusgai.

**ARAMAIO**  
**LAGUN ARTEAN DANTZA TALDEAK**  
**60. URTEURRENA OSPATU ZUTEN**

60 urtetan taldean ibilitakoak zeuden gonbidatuta urriaren 15eko jaialdira; jendetsua izan zen. Txistulari ibilitako Patxi, Joakin eta Juan Joxe Aiausti eta Bixente Mondragon omendu zituzten eta Ainara Inuntziagari txalo egin zioten egindako lanagatik.

**OÑATI**  
**HERRIBUS ZERBITZUA JARRI**  
**ZUTEN MARTXAN**

Herribus zerbitzua jarri zuten martxan Oñatin. Urriaren 8an hasi zen martxan, eta ordu erdian behin eskaintzen du zerbitzua. Kultura etetik, osasun zentrotik, kiroldegitik eta ikastetxeetatik gertu ditu geldiuneak. Proban egingo da hiru hilabetez.

**ARRASATE**  
**UDALAKO LEHENENGO AUTO**  
**IGOERA ANTOLATU ZUTEN**

Azken urteetan *motorshow*-ak antolatu ostean, aurten auto igoera antolatu du Arrasateko A+Gas taldeak. Lasterketa Udala auzoan egin zuten urriaren 29an. Bost txanda izan zituen. 30 pilotuk eman zuten izena parte hartzeko.

**ARRASATE**  
**XIBEROA EGUNA EGIN ZUTEN**  
**LEHENENGO ALDIZ**

AEDK gonbidatuta, Zuberoako Eperra ikastolako 30 lagun etorri ziren urriaren 15ean egin zen Xiberoa Eguna ospatzera. Konfiantzaren pedagogiaz eta kooperatibismoaz hitzaldiak izan zituzten eta euren produktuak hemengo azokan erakutsi zituzten.



**ARETXABALETA**

**Edukiontzia sistema berria**  
**jarri zuten Aretxabaletan**

Edukiontzia bidezko hondakinen bilketa sistema urriaren 19an jarri zuten martxan Aretxabaletan. Bi egun lehenago jarri zituzten edukiontzia. Sistema berriarekin, Udalaren asmoa zen %80tik gorako birziklatze tasa mantentzea, aldi berean, hondakin ezberdinen nahastea ekidinda. Organikoaren eta errefusaren edukiontzia zabaltzeko txartelak banatu eta bilketa enpresarekin adostasunera iritsi ziren sistema martxan jarri aurretik.

**ARRASATE**

**Fagor CNAko 122 langile**  
**EREan sartu ziren**

Fagor CNAren Garagartzako lanategia EREan sartu zen. Zehazki, 95 bat langile langabeziara pasa ziren urriaren 26an. EREa langileen adostasunik gabe erabaki zen. CNAren Garagartzako langileak ziren guztiak. Egoketa lerroko langileak bi asterako zeuden langabezian eta garbiketako lerrokoak, lau asterako. Enpresak arrazoi ekonomikoak eman zuten EREa aplikatzeko, eta aurretik esana zuen helburua zela pilotu-tako stockari irteera ematea.

**DEBAGOIENA**

**Balio katastrala**  
**eguneratu zuten Aldundiak**

Balio katastralak errebisatu egin zituzten Foru Aldundiak, lehenengo aldiz 2001a ezkerro. Horrek eragina izango zuen IBIn. Debagoienean, Gipuzkoan ez bezala, hiri-lurrien balioa, orokorrean, jaitxi egin zen; eta Gipuzkoa osoan industria lurrena ere bai. Aldaketaz informatzeko gutun bidalketa hasi zuten Aldundiak urriko azken asteetan. Etxebizitza edo bestelako higiezin baten jabe diren herritar guztiek jaso zuten gutuna.

**ELGETA**

**80 urte bete ziren tropa**  
**frankistak sartu zirela**

Urriaren 80 urte bete ziren Elgetan tropa frankistak geldiarazi zituztela. Hori goraipatu eta memoria historikoaren esparruan egun dauden erronkak ezagutzera emateko, jardunaldi memorialistak antolatu zituzten urriaren 1ean, Elgetako Espaloian, Iruñeko, Bilboko eta Bartzelonako udal-tako ordezkari esanguratsuak izan ziren, besteak beste. Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformako kide Josu Ibargutxi ere egin zen.



**OÑATI**

**Harrobia handitzearen**  
**aurka agertu ziren**

Arantzazura bidean dagoen harrobia handitzeko asmoa agertu zuen hori ustiatzen duen Aridos Aloña enpresak. Handituz gero, bikoiztu egingo luke azalera. Proiektu horren aurka agertu ziren, urriaren 22an, udalbatza osatzen duten alderdi biak. Urriaren 22an prentsa agerraldia egin zuten Oñatiko eta bailarako hainbat eragilek handitzearen kontra. Arantzazu Defenda Dezagun herri plataforman elkartuta.




**DEBAGOIENA**

**1,32 milioi bueltatu behar**  
**zutela jakin zuten udalek**

2016ko Udal Finantzaketa Foru Fondonaren aurrekontu itxierak ez zituen aurreikuspenak bete eta Debagoieneko udalek 1,32 milioi bueltatu beharko dizkiote Foru Ogasunari. Hain zuzen, 2016ko aurrekontua 39,2 milioikoa zen bailarako, eta aurre-itxierak 38,6 milioiko zifra utzi zuen. Urriaren 28an egin zuten aurreikuspena zen, aurre-likidazioa; likidazioa otsailean egingo da eta orduan jakingo dira behin betiko datuak eta emaitzak.



Debagoieneko  
**GREMIOAK**



**ARROZTEGIAK**

**AZKARATE AROZTEGIA**

BERGARA  
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.  
• K-21  
Telleria 19 B02-B03  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

**HONDEAKETAK**

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**

ARRASATE  
Meatzerreka 30  
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87  
[e. arrasate@gmail.com](mailto:e. arrasate@gmail.com)

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**

ARRASATE  
Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**

ESKORJATZA  
• Iturgintza eta gasa  
• Berogailuak eta petrolio-produktuak  
• Klimatizazioa  
Aranburuzabala 15  
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69  
[i.oyanguren@ctv.es](mailto:i.oyanguren@ctv.es)

**URKO MANTENIMIENTO SL**

ARETXABALETA  
• Instalazioen mantentze-lan guztiak  
• Berokuntza eta gasa  
• Aire girotua eta halzeztatzea  
Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

**LEIHOAK**

**ARGI-PLASTIK**

ARRASATE  
Zigarrola kalea 1, 8 pab  
Tel.: 943 77 11 30

**LOREZAINZTA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**

ARETXABALETA  
• Barruko zein kanpoko lorezaintza  
• Ureztatzeko sistemak  
• Loreontzi-euskarriak eta balkonera  
Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.

Zorionak eta urte berri on!

Gabon jai  
zoriontsuak  
guztiei!



Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA  
[ilea.peluqueria/ileapaindegia](http://ilea.peluqueria/ileapaindegia)



**BERGARA ARITZ KORTABARRIA**  
TRIATLETA

Aritz Kortabarria Hawaiiko ironmana amaitzea lortu zuen urriaren 8an (10.32.18). Asko sufritu zuela aitortu zuen triatletak proba amaitzean.

**DEBAGOIENA BAILARAKO IKASTETXEEI OMENALDIA FORU ALDUNDIAK**

Debagoieneko ikastetxe batzuek -Arrasateko bat, Oñatiko bi eta Bergarako bi- omenaldia jaso zuten urriaren 4an, Foru Aldundiaren eskutik, *Markel Olano* ere bertan zela, *Ekonomia* eta *Zergak* foru proiektuan hasieratik parte hartzeagatik.

**DEBAGOIENA AURREKONTU IREKIAK DEBAGOIENERA IRITSI ZIREN**

Aurrekontu Irekiak prozesu parte-hartzailea egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Debagoieneko hiru herritan egon zen karpa ibiltaria, Imanol Lasa diputatuarekin. Balorazio ona egin zuten arduradunek, ekarpen asko jaso zituztelako.



**BERGARA Aurreikuspenak bete egin zituzten Kilometroak**

Demasa leloarekin egin zen Kilometroak festa Bergaran urriaren 2an. Urte guztian egindako lanaren azken pausoa izan zen eta "aurreikuspenak bete" zituela aitortu zuten antolatzaileek, Aranzadi ikastolako ordezkariak. Eguraldi ona egin zuen eta uste baino jende gehiago joan zen Bergarara egun hartan; 55.000 lagun izan ziren. Erroka proban ere gaztetxo asko aritu ziren. Leku-koa Oñatiko Txantxiku ikastolari pasa zioten (eskuman).



**ELGETA Ipuruako partidu egunetan, arazoak zirkulazioarekin**

Kexak izan dira Elgetan, Ipuruan partidua dagoenean Eibarren itxi egiten dutelako Elgetarako errepidea. Eta urrian erabaki zuten Ubixa kaletik bideratuko zituztela ibilgailuak. Urriaren 30ean egin zuten hori lehenengo aldiz; proba izan zen, ikusteko ea ordezko bide horrekin konpontzen den arazoa. Elgetako Udalak askotan hitz egin zuten Eibarkoarekin arazo horri irtenbidea topatu nahian.

Alazne Bengoetxea (Oñate KE), Sergio Llamas (Deportivo Alaves), Ainhoa Vicente (Athletic de Bilbao), Xabi Prieto (Real Sociedad), Mikel Balenziaga (Athletic de Bilbao), Sandra Ramajo (Real Sociedad), Asier Riesgo (SD Eibar), Nerea Abancens (Oñate KE)

**Jatorrian txiki, Garaipenean HANDI**

Euskal Selekzioa

Anoeta Futbol Zelaia (Domostia) Ekipazio Ofizialaren Aurkezpena 2016/10/25

www.astore.es

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ASTORE

**102 MILIOI EURO**

Garaia Berrikuntza Guneak herritarrei ireki zizkien atek azaroaren 12an. Joseba Sagastigordia zuzendariak iragarri zuen 102 milioi euro pasako fakturazioa zuela Garaiak.

**BERGARA JOINT COMMISSION-EN ZIURTAGIRIA OSASUN ZENTROARI**

Pazientearen segurtasuna eta arretaren kalitatea ebaluatzen dituen Joint Commission International egiaztagiri ospetsua jaso zuen Bergarako osasun etxeak. Oñatikoaren eta ospitalearen atzetik hirugarrena izan zen hori lortzen Debagoiengan.

**OÑATI PLAZAKO GERNIKAKO ARBOLA AZTERTU ZUEN ADITU BATEK**

Oñatiko Foruen plazan dagoen eta datorren urtean 100 urte beteko dituen Gernikako arbola aztertzeraz etorri zen aditu bat azaroaren 7an; izan ere, urrian adar sendo bat erori zitzaion. Azterketa txosten batean jaso zuen Udalak, ze egin erabakitzeke.



**BERGARA JESUS MARI LAZKANO**  
MARGOLARIA ETA JAKIUNDEKO KIDEA

Jakiundeako kide izendatu zuten Jesus Mari Lazkano bergararra azaroaren 11n. "Erantzukizun handiko ohorea" zela jakitun izatea aitortu zuen margolariak.



**BERGARA JOSE ANTONIO AGIRREÑA**  
ELIKAGAI BANKUKO ARDURADUNA

"Izugarrizko lorpena litzateke iazko 165.000 kiloak gaintzea"

**ARRASATE Pintura gorria bota zieten batzokiari eta langileei**

Pintura gorridun poteak bota zituzten Arrasateko batzokiaren aurrealdera ezezagun batzuek azaroaren 4an, eta hango bi langile zikindu zituzten; lurrean etzanda bi pampina jarri ere bai. Udaltzatuko bost taldeek gaitzetsi zuten erasoa eta elkartasuna adierazi zieten hango langileei. Erasoaren egileen arabera, "EAJk langileen prekarietatean eta TTIP akordio neoliberallean duen eratzukizuna" irudikatu nahi izan zuten.



**ARETXABAETA Hitzarmena Copreciren eta Udalaren artean**

Aretxabaleko kooperatiba handienak, Coprecik, hazten jarrai zezan hitzarmena sinatzea onartu zuen Udalak harekin, azaroaren 21ean egindako osoko bilkuran. Basabe baserri azpiko lur-saila ematekotan geratu zen Udala kooperatibari, han 98 aparkaleku berri egin zitzaion. Era berean, inguru horretako planamendua urtebeteren bueltan aldatzeko konpromisoa hartu zuen Coprecik.



**DEBAGOIENA Kamioi eta irudi berriak fase berriari ekiteko**

Hondakin bilketaren fase berria irudikatzeke logotipo berria aurkeztu zuen Debagoieneko Mankomunitateak azaroaren 15ean; baita kamioi berriak ere. Alboko kargadunak ziren, hain justu ere, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabalean jarritako edukiontzi berriei egokitutakoak. Logo berriarekin, osteraz, sistemaren "eraginkortasuna" azpimarratu zuten hiru esparrutan: aurrerapausoak emateko bidean, erabilpenaren esparruan eta ekonomikoan.



**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

**URRATS**  
Podologia Zentrua  
PODOLOGIA ZERBITZUAK

Arantzazuko Ama 19 A - OÑATI  
Tel.: 943 53 36 37  
Orduetgia: 09:00etatik 13:30era  
15:30etik 21:00era  
podourratsoinati@gmail.com

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!**

**ZELAI ZABAL**  
RESTAURANTE

Informa zaitetz! 943 781 306 restaurante@zelaizabal.com

**BERGARA**  
**LOKATZAREN 40. URTEURRENEAN**  
**TXIRRINDULARIEI OMENALDIA**

Lokatza Ziklismo Eskolako kideek lagun artean ospatu zuten 40. urteurrena hilaren 19an. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako txirrindulariak omendu zituzten, eta ziklismoan zeresan handia izandako hainbat, Txomin Perurera esaterako, gerturatu ziren.

**ARAMAIO**  
**SEI ARAMAIOAR ARABAKO**  
**BERTSOLARI TXAPELKETARA**

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketan jardungo dutenen zerrenda zehaztu zuten azaroan. Hemezortzi bertsolariren artean sei aramaioar zeuden: Manex Agirre, Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre, Paula Amilburu eta Peru Abarrategi.

**ANTZUOLA**  
**MAPA TOPONIMIKO EGUNERATUA**  
**AURKEZTU ZUEN UDALAK**

Mapa toponimikoak, ortoargazkiak eta kale izendegiak osatutako Antzuolako mapa aurkeztu zuten Udaleko eta Jauraritzaiko ordezkariak azaroaren 2an. Han jaso zituzten, besteak beste, aldaketa arkitektonikoak, baserrien izenak eta hainbat zerbitzu.



**ARETXABAETA**  
**IGOR**  
**SAN JUAN**  
MUSIKARIA

Lehen diskoa kaleratu zuen musikari aretxabaletarrak: *Izarrik gabeko zerua*. Jazz ukituko diskoa izan zen nahiz eta estilo asko batu, bosa noba eta swinga, besteak beste.

**ARAMAIO**  
**BI TXAPEL LORTU ZITUZTEN SAN**  
**MARTIN PILOTA TXAPELKETAN**

III. San Martin Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren azaroaren 12an eta Aramaio pilotariak zortzi finaleraino iritsi ziren. Infantil A eta alebin B mailetan txapelak lortu zituzten eta antolatzaileak oso pozik azaldu ziren.



**OÑATI**  
**Abbadia Saria Moriarti**  
**Produkzioarentzat ▶**

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen alorrean egindako lanagatik urtero ematen duen Abbadia saria Moriarti Produkzioak zinema ekoizleari ematea erabaki zuten. Aitor Arregi zinemagile oñatiarra da ekoiztetxeko sei kideetako bat.

"Aitortu nahi izan da ikus-entzunezko esparruan euskarari ekarpen handia eta jarraitua egin izana", jakinarazi zuen Mikel Irizarrek, Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak.



**ELGETA**  
**Ur zikinak Sesto errekar**  
**isurtzen ziren ◀◀**

Elgetako udal ordezkariak kezkatuta agertu ziren ur saneamenduan lanak oraindik bukatu barik jarraitzen zutelako azaroan, eta, ondorioz, ur zikinak Sesto errekarra isurtzen zirelako (ezkerreko argazkian Iraitz Lazkano alkatea errekan). Ura Agentziak 2007an hartu zuen saneamenduan lan egiteko konpromisoa, baina ez dituela 2021a baino lehen egingo jakinarazi zuen. Udalak eskatu zion lanei lehenbailehen heltzeko, erreka egoera txarrean zegoelako.



**BERGARA**  
**Enpresadako bi eraikin**  
**berri, Larramendin ◀**

Bergarako Larramendi industrialdean bi eraikin egiteko 3,5 milioi euroko inbertsioa egingo zuela Spirilurrek iragarri zuten udal ordezkariak azaroaren 23an. Eraikin bat, 7.650 metro koadrokoa, erabilera industrialerako izango da, eta bestea, 765 metro koadrokoa, erabilera komertzialerako; bost enpresak agertu zuten interesa han kokatzeko. Elena Lete alkatea "aktibitate industrialia suspertzeko eta laguntzeko baliagarritzat" jo zuen.



**ARRASATE**  
**Arizmendiarrietaren gorpuzkiak**  
**lekuz aldatuta ▶▶**

On Jose Maria Arizmendiarrietaren, kooperatibismoaren aitaren, gorpuzkiak Arrasateko San Kristobalgo hilerrietik San Juan Bataiatzailearen elizara eraman zituzten azaroaren 24an. Arrosarioaren Ama Birjinaren erretaularen beheko aldean gorde zituzten han. Aita santuak iaz beneragarri izendatu zuen apaiza, eta beatu edo santu izendatzeko bidean pauso bat gehiago izan zen lekualdaketa.



**OÑATI**  
**NIKOLAS**  
**SEGUROLA**  
FRAIDEA, ARTZAINA  
ETA BERTSOLARIA

Iñaki Beristainek, Xabier Euzkitzek eta Eduardo Urartek idatzitako *Nikolas Segurola, fraide, artzain eta bertsolari* liburua aurkeztu zuten Arantzazun, azaroaren 26an.

**342**  
ETXE

Errekargua zuten etxeen kopuruak (hutsik dauden etxebizitzak) %25 egin zuen behera Oñatin; 2013an 449 izan ziren eta 2016an, 342.



**DEBAGOIENA**  
**KIKE**  
**AMONARRIZ**  
SOZIOLINGUISTA ETA  
KOMUNIKATZAILEA

**"Hizkuntza bat ezin liteke normalizatu hedabideetan ez badu presentziarik"**



**DEBAGOIENA**  
**Debagoieneko proiektu**  
**berritzaileak Aldundira**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurraldearen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko asmoarekin, hamalau proiektu berritzaile aukeratu zituen azaroaren 7an, *Etorbizuna Eraikiz* programaren baitan, eta horietatik ia erdiak Debagoienekoak ziren; hain zuzen, honako eragile eta enpresa hauek bultzatutako proiektuak: Isea kooperatiba; Huhezi (Mondragon Unibertsitatea) eta GOIENA; Oñatiko Udala; Emun kooperatiba; Ekai Center; eta LKS.



**ARAMAIO**  
**Kirol ibilbideari agur esan zion**  
**Unda borrokariak ▲**

Maidar Unda aramaioarrak (Oleta, 1977), 30 urtez borroka libreaki lotuta egon eta gero publikoki esan zuen agur azaroaren 9an: "Orain borroka ez da nire lehentasuna", zioen kazetarien aurrean. Hogei urtez jardun zuen lehiatzen, horietako asko gorengo mailan, Europako eta munduko txapelketetan eta Olinpiar Jokoetan, besteak beste, emaitza bikainak lortuta.

**Mobiliario**  
**ARENAZA** altzariak

*Gabon zoriontsuak guztioi!*

Bizkaia kalea 1 **Aretxabaleta**  
943790807  
mobiliarioarenaza@hotmail.com



**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L. **MARGO LANAK OROKORREAN**

Zorionak eta Urte berri on!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32

Goizperrek gabon jai zoriontsuak opa dizkizue guztioi.

Urte berri on!  
2017

**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen

Ihiztadura • Industria • Bioteknologia

Laguntzaileak gara:





#### OÑATI BI DEBAGOIENDAR AURREZ AURRE ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETAN

Rezusta bergararrak (Iribarriarekin) eta Mendizabal antzuolarrak (Tolosarekin) nor baino nor gehiago jardun zuten abenduaren 16an, Oñatin, eskuz binakako pilota txapelketari zegokion partiduan. 22-17 nagusitu zen lehen bikotea.

#### BERGARA BRONTZEA FERNANDO COBOSEK ETA 'GARI' TXAKURRAK

Sorian (Olvega herria) jokaturako Espainiako Txakur-kros Txapelketan, 40 urtetik gorakoen artean, hirugarren sailkatu zen Fernando Cobos korrikalari bergararra Gari txakurragan lagun eginda. Bi lasterketatan jardun zuten eta lan bikaina egin bietan.



#### OÑATI RUPER ORDORIKA MUSIKARIA

"Disko honetan sentitu dut halako zorabio bat, zorionez"



#### ESKORIATZA

#### Jose Aranako bigarren faseko lanak hasita ▶

Jose Arana zaharren egoitzako bigarren faseko lanak (hiru fase zituen obrak) hasi zituzten abenduan. Azpiko solairuan egitekoak ziren lanok; jantokia, egongela handi bat eta komunak besteak beste. Horien aurrekontua 150.000 eurokoa zen eta sei hilabeteren buruan bukatuta izango zituztela iragarri zuten. Obra garrantzitsutzat jo zuten egoitzako arduradunek, "eguneroko funtzionamenduan aldaketa nabarmena" ekarriko zuelako.



#### ARRASATE

#### Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe barruak astintzen ▲

Arrasateko Herriko Plaza Memoriaren Plaza bilakatu zuen Gogora Institutuak azaroaren 28tik abenduaren 4ra, eta Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe biktimek arrasatearren testigantza entzuteko lepo bete zen. Izan ere, abenduaren 1ean biak jardun zuten barruak astintzen aurrenekoak, jendaurrean. Herritarrez gain, hainbat alderditako ordezkariak elkartu ziren (argazkian: PPKoa, EH Bildukoak eta Irabazikoak).



#### DEBAGOIENA

#### 'Kalera, kalera' ekimenak deituta ekintza asko ◀

Euskal preso eta iheslari ohiek Kalera, Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera lelo zuten dinamika abiarazi zuten abenduan eta Debagoiengan ere bat egin zuten horrekin. Hainbat ekitaldi egin zituzten, besteak beste, udaltxearen itxialdiak Oñatin eta Aretxabaletan, elkarretaratzea Eskoriatzan, apustua Antzuolan eta eskualdeko manifestazioa Arrasaten. Ekimenaren deitzaileek nabarmendu zuten presoaren egoerak "txarrera" egin zuela.

*Zorionak eta urte berri on bergarar guztioi!*

AZPEITXI • ETXAGI • IRISH PUB GALWAYS  
BULE • EUXEBIO II • TOKI ONA BODEGOIA  
USOA • ARIZNOA • POL POL

#### OÑATI GORRITXITXIKO TUNELEKO MARGOLANA ERRETA AGERTU ZEN

Azaroaren 25a aldarrikatzeko Gorritxitxiko tunelean, auzolanean, egindako margolana erreta agertu zen abenduaren 3an. Hori salatu zuten herritarrek, udalbatzak eta sare feministak eta indarkeria matxistari aurre egiteko konpromisoa eta lana aldarrikatu zituzten.



#### ARRASATE JIANAN TIAN AKORDEOILARIA

Jianan Tian txinatarrak irabazi zuen 24. Arrasateko Nazioarteko Akordeoi txapelketa. 37. Gipuzkoa Lehiaketako garailea, oster, Ane Urbizu tolosarra izan zen.



#### ARAMAIO JONE OIANGUREN IZOTZ HOCKEYKO JOKALARIA

Espainiako 18 urtez azpiko izotz hockeyko selekzioarekin jardun zuen Oianguren, Gasteizko Sumendi taldeko atezainak, abenduaren Setik 8ra bitartean.

#### ARRASATE ARRASATEKO ANBULATORIOARI ERE NAZIOARTEKO ZIURTAGIRIA

Arrasateko anbulatorioak – Oñatiok, Bergarakoak eta ospitaleak bezala – Joint Commision erakundearen nazioarteko agiria eskuratu zuen. Debagoieneko ESiren zuzendari Andoni Arzelatik eskertu zituen profesionalen konpromisoa, ahalegina eta eguneroko lana.



#### DEBAGOIENA AINHOA ARROZPIDE ZERO ZABOR ELKARTEKO KIDEA

"Debagoieneko egungo hondakinen kudeaketa sistemak eredugarriak dira"



#### ARRASATE

#### Julio Galartaren ondarea osatzeko inbentarioa ◀

Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak artista arrasatearrak margotutako koadroen gaineko datuak biltzen hasi zen. Lehen helburua zehaztu zuten 1.000 lanetan, eta hara hurbiltzeko gertu zuten abenduan. Lan kuantitatearen gerturatzeko egitearekin batera, margolariaren izena ekarri nahi zuten gogora egitasmoarekin. Izan ere, 2017a izango da Galartaren jaiotzaren mendeurrena eta elkarrekin erakusketa bat egingo du.

#### OÑATI

#### Erdiguneko hainbat kaletan TAO sistema abian

Abenduaren 15etik abian zen Oñatiko erdiguneko hainbat kaletan TAO sistema. Aparkalekuetan ibilgailuen errotaioa erraztea zuten helburu, horregatik doakoa jarri zuten. TAO aparkalekuak marra urdinez margotuta zehaztu zituzten eta 60 minutu adierazten zuten ikurrak zoruan adierazita. Bertako egoiliarrendako 67 aparkaleku gorde ziren, eta, hori jakinarazteko, BR letrak zuriz margotu zituzten.

#### ELGETA

#### Bulegoa frankismoaren lekukotasunak jasotzeko

Testigantzen bulegoa zabalduko zutela Elgetan – 2017ko urtarrilaren 16tik otsailaren 17ra – iragarri zuten Udal ordezkariak. Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma matik jakinarazi zuten biktimek askoren lekukotasunak oraindik jaso gabe zeudela: "Guk geuk eraikitako memoria historikoa osatzeko nahitaezkoa da lekukotasunak jasotzea". Horiek, gero, frankismoaren kontrako kereilan salaketa ipintzea zen asmoa.

#### ARRASATE/ESKORIATZA

#### 34 langile kaleratu zituzten Fagor CNA enpresak ▶

Geyserreko eta Edesako langile komiteek deituta, ordubeteko lanuzteak egin zituzten abenduaren 12an Edesa Industrialek Arrasaten, Eskoriatzan eta Basaurin dituen lan zentroetan, Fagor CNA taldeak 40 langile kaleratuko zituela jakinarazi zuelako. Abenduaren 20an jakinarazi zuen enpresak 34 langile kaleratuko zituela; horietatik 26k enpresak proposatutako baldintzak onartu zituzten, baina beste zortzi kaleratzeak traumatikoak izan ziren.



Asteleheneretik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30  
Ostirala: 09:30 > 18:30  
Larunbata: 08:30 > 12:30  
Astelehen, Astearte eta Asteazkenetan %20ko eskaintza  
Ostegunetan %20ko eskaintza (mutilak)

## Jean Louis David

IBARGARAI 48 • 20570 Bergara • 943 76 22 48 • www.jeanlouisdavid.com



**ARRASATE**  
**IÑIGO URIBARREN ETA ENEKO CARRASCAL SARITU ZITUZTEN**  
Lurraldeko atleta nabarmenenen artean arrasatear bi hautatu zituen Gipuzkoako Atletismo Federazioak. Iñigo Uribarrenek urteko atleta onenaren saria jaso zuen abenduaren 9an Donostian egindako ekitaldian, eta Eneko Carrascalek gazte onenaren saria.

**OÑATI**  
**PORTU KALEKO ETXE BAT ERRE ETA HIRU LAGUN ZAURITU ZIREN**  
Abenduaren 12an 22:30 aldera hartu zuen su Portu kaleko etxebizitzak, eta bertan bizi ziren bi lagunak zauritu ziren: 90 urteko gizona, kea arnasteagatik, eta 65 urteko emakumea, erredurengatik. Ertzain bat ere zauritu zen, kea arnastuta.



**BERGARA**  
**JOKIN**  
**ETXABE**  
TXIRRINDULARIA  
AEBetako Aevolo Cycling Team taldeak fitxatu zuen Bergarako ziklista gaztea, Debagoieneko bosgarren txirrindulari profesionala izango zena.



**ARETXABAETA**  
**Ziklo-krosaren historia jaso zuten dokumentalean ▼**

Ziklokrosa *Aretxabaetan* izenarekin ziklo-krosaren urrezko garaiko dokumentala aurkeztu zuten abenduaren 9an. Arteman komunikazio enpresak egin zuen eta 40 minututan jaso zituzten orduko lasterketak eta antolatzaileen testigantzak, besteak beste, Manolo Zubillagarena, Jose Angel Arkauzena eta Antziñe Mendiarena. UDAREN 70. urteurrena borobildu zuten dokumental horrekin.



**DEBAGOIENA**  
**Ospakizun eta aldarrikapen asko Euskararen Egunean ▶▶**

Euskararen Nazioarteko Eguna jai giroa ekarri zuen Debagoieneko kale bazterretara beste behin, abenduaren 9an. Euskara aitzakia hartuta korrika egin zuten Aramaion eta Elgetan (eskumako argazkian), jolas Bergaran, dantzan Arrasaten (goian), bertsoan Aretxabaetan eta euskaldun berriei eskainitako plaza inauguratu zuten Eskoriatzan (goian), besteak beste.



2016an, Goiena Klubeko bazkideok PUNTUA aldizkaria jaso duzue astero. Sari mordoxka irabazteko aukera izan duzue. Debagoieneko hainbat komertziotan deskontuak eskuratzeko aukera izan duzue.

Goiena Klubeko bazkide guztiei  
**ESKERRIK ASKO.**

**ANIMA ZAITEZ**

Eta ez bazara Goiena Klubeko bazkide, urte osoko 55 euroko kuotaren truke egin zaitez bazkide. Anima zaitez. Deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira!

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

**Urteko onena & txarrena**

20 debagoiendarrek urteko onena eta txarrena aukeratu dute. Alde onean, herri galdeketak, emakumeen eta kirol ekintzak... eta txarrean, gerra eta errefuxiatuen krisia, besteak beste.



**URKO EGAÑA**  
BERTSOLARIA ETA AUZOKO ARDURADUNA  
OÑATI

**↑ SEGUROLA ETA SARRIONANDIA**  
"Biziki postu nau Nikolas Segurorari buruz eginko liburuak, baita Joseba Sarrionandiaren agerpenak eta horrek dakarren guztiak ere".  
**↓ MIGRAZIO MUGIMENDUAK**  
"Zenbait guda eta egoera sozia- lekeragindako migraziomugimenduek utzitako irudiak: esaterako, siriar errefuxiatuak bizi duten infernua".




**AINHOA BARANDIARAN**  
HERRITARRA ETA GURASO ELKARTEKO KIDEA  
LEINTZ GATZAGA

**↑ GATZAGAKO ESKOLA**  
"Herritarron aldarrikapenei esker, azkenean, Gatzagako eskola herrian bertan geratzea lortu dugula nabarmenduko nuke".  
**↓ ERREFUXIATUEN EGOERA**  
"Gerrak eta pobrezia jotako Siria bezalako lurraldeetatik Euro- para iritsi nahian dabilten milaka errefuxiatuak bizi duten egoera".



**JUANITA ZABALO**  
ERRETIRATUA  
ANTZUOLA

**↑ EMAKUMEEN BAT EGITEA**  
"Berriki Jerusalemen erlijio desberdinetako emakumeak bakearen alde elkartu dira. Energia horiek aurrera eramán behar dira".  
**↓ ANAITASUN FALTA**  
"Asko sufritzen dut pertsonok berbaz elkar ulertzeko dugun gaitasun ezarekin. Anaitasuna eta errespetua landu beharreko balioak dira".



**OIER PEÑAGARIKANO**  
HERRITARRA  
ANTZUOLA

**↑ EH-N IZANDAKO GALDEKETAK**  
"Nazio garen aldetik, erabakitze eskubidearen bidean inflexio puntu bat da. Herri gisa gure iritzia zilegi dela erakutsi duelako".  
**↓ SIRIAKO GATAZKA**  
"Sortutako krisi humanitarioa izugarritzko katastrofea izaten ari da; Europak duen ardurua politikoarekin, bere jarrera deitoragarria da".



**ANTON AZPIAZU**  
TXOKOLATEIXAKADA  
OÑATI

**↑ BISITARI GEHAGO**  
"Toki desberdinetako gero eta turista gehiago dator gurera. Horrez gain, herriko jendeak ere interesa erakusten du eta inplikatur dago".  
**↓ ASTIRIK GABE**  
"Artaldean datozten turista batzuek ez dute denborarik hartzen azalpenak entzun eta benetan ikas- teko. Sartu-irtena egin eta listo".



**ARGITXU PEROSTERENA**  
DENDARIA  
HERRIA

**↑ BAZKUNDEAREN SARIA**  
"10 bitxien Gipuzkoako baz- kundeko bailarako saria gure dendak jasotzea. Indar asko ematen du aurre- ra segitzeko. Eskerrik asko bezeroei".  
**↓ DENDA TXIKIEN ITXIERA**  
"Krisitik irten garelara diote, baina min egiten dit aldiro denda txiki bat itxi dela ikusteak. Denon hausnarketa merezi du gai honek".



**ANDERE ARRIOLABENGOA**  
BERTSOLARIA  
ARAMAIO

**↑ HERRI GALDEKETA**  
"Ekainaren 5ean Erainen esku- tik eginko galdeketa. Burujabetza bidean beste pauso bat. Ikaragarria bizitakoa eta inplikatu zen jendetza".  
**↓ BIOLENTZIA MATXISTA**  
"Sei emakume erail ditugurean. Milaka salaketa, ehunka atxilotu eta hamaika aurpegi ditu biolentziak. Denekin amaitu arte, bakerik ez".



**LANDER GOIKOETXEA**  
SASKIBALOIKO ENTRENATZAILEA  
ESKORIATZA

**↑ ARESKO MARTXA**  
"Aresko martxak izandako harrera ona eta infantil eta kadete mailetan Gipuzkoako txapeldun izan- tea lortzea; denak, lanaren ondorio".  
**↓ KLUBEN HARREMANA**  
"Bailaran dauden saskibaloi- ko bi kluberen arteko harremana, elka- rrekin lan egin beharrean bata bes- teari traba egiten baitiogu".



**LOREA LARRAÑAGA**  
MUSIKA IRAKASLEA  
ELGETA

**↑ AUERRAPEN TEKNOLOGIKOAK**  
"Guztion bizitza errazteko eta bizi kalitatea hobetzeko aurrerapen teknologiko handiak izaten ari dire- la ikusten jarraitzen dugu".  
**↓ INDARKERIA MATXISTA**  
"Bestelako arloetan aurrera- penak handiak diren arren, ez da halako aurrerapausorik emakumez- koen aurkako indarkeriaren kontra".



**ARANTXA UNZUETA**  
KULTURA TEKNIKARIA  
ESKORIATZA

**↑ ERASOEN GAITZESPENA**  
"Sanferminetako eraso sexi- stei emandako erantzun kolektiboa eta horrek gizartean eragin duen kontzientzia aldaketa.  
**↓ ALEPO**  
"Sexu erasoak, Altsasuko esperpentoa edo errauskailua ahaz- teke, Gabon argiegi begira gaudela Alepon edo Gazan gertatzen ari dena."

**Uarkape**  
HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL  
RPS: 294/13  
• Odontologia orokorra  
• Endodontziak  
• Inplantologia protesiak

**Zorionak eta urte berri on!**

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

**LIZKER**  
Tel.: 943 71 80 52  
AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala  
• Lan aholkularitza  
• Kontabilitatea  
• Zerga aitortpena

*Zorionak eta Urte berri on!*

Errementari plaza 2-3 behea • OÑATI



**MALEN RUIZ DE AZUA**  
ATLETA  
ARRASATE

**BOLUNTARIOEN LANA**  
"Boluntarioek egiten duten lana txalotu gurako nuke, auzolanean, euskara eta kultura sustatzen, gobernuaz kanpoko erakundeetan..."

**KIROL MINORITARIOAK**  
"Aro negatiboan, berriz, kirol jarduera minoritarioek jasotzen duten laguntza eta babes eskasa salatu gurako nituzke".



**MARIA AGIRRE**  
KAZETARIA  
ARETXABALETA

**MEMORIANEN PLAZA**  
"Sandra Carrascok eta Olatz Etxabek Arrasaten, Memoriaren Plazan, egindako hitzaldia; itxaropentsua da gatazkarako irtenbidea ikustea".

**EUSKAL PRESOAK**  
"Presoen sakabanaketa jasaten duten familiek milaka kilometro egiten jarraitzen dutela; politikari batzuek ez dute sentsibilitaterik".



**JESUS MARI LAZKANO**  
MARGOLARIA  
BERGARA

**KONTZIENTZIAZIOA**  
"Lurraren Nazioarteko Eguneko Parisko akordioaren baitan hartutako erabakiek erantzukizun global baten kontzientziazioa dakarte".

**ERREFUXIATUEN KRISIA**  
"Eztabaida beliko zein ekonomikoek eragindako arazo humanitarioak herrialde aberatsen solidaritate eta justizia falta ekarri du".



**AMAIA IRIZAR**  
MANKOMUNITATEKO GARAPEN AGENTZIAKO ARAMAIO

**ESKAITZA KULTURALA**  
"Eskualdeko eskaintza eta mugimendu kultural anitza: antzerkia, musika, pintura... Gazte eta nagusi, guztiok sorkuntzan!".

**ERREFUXIATUEN KRISIA**  
"Mendebaleko gizarteak gerretatik ihesi datozen errefuxiatuei laguntza emateko orduan erakutsitako borondatek eta gaitasunik eza".



**RIKARDO LAMADRID**  
ARETXABALETA LANBIDE ESKOLAKO ZUZENDARIA  
IGORRE

**KRISIRA MOLDATZEN**  
"Euskaldurok, orokorrean, krisi garai honetan egoerara moldatzeko, bizitza birplanteatzeko eta bizi irauteko izan dugun gaitasuna".

**'BREXIT'-A ETA TRUMP**  
"Ez diot erabaki txarrak direnik; ikusteke dago. Txarrena da aurreikuspenen aurka, bi bozketetako emaitzek sortutako ezegonkortasuna".



**SAIOA OJANGUREN**  
LIBURUZAIN LAGUNTZAILEA  
ARRASATE

**BIBLIOTEKAK 50 URTE**  
"Bibliotekan urte hauetan egiten dugun lanarekin gustura daude herritarrak, eta bertan lan egiten dugun ondako oso garrantzitsua da hori".

**TRATU TXARRAK**  
"Emakumeek emakume izateagatik jasotzen dituzten tratu txarrak; ezer aldatzen ez den artean, behin eta berriz salatu behar ditugu".



**ANDER ETXANIZ**  
MUSIKARIA  
OÑATI

**ALEPOKO LIBERAZIOA**  
"Siriako armadak Alepo hiria hartu izanak gerraren norabidea aldatuko du. Gertakari horren ondoren indarren balantza aldatu egingo da".

**BIOLENTZIA MATXISTA**  
"Emakumeak indarkeria matxistaren jazarpenpean bizi dira, berdintasunerako bidea luzea da. Gizarte osoa mobilizatu behar da".



**AMAGOIA LASAGABASTER**  
ELA SINDIKATUKO KIDEA  
BERGARA

**TTIP AKORDIOA ETETEA**  
"Europar eta Euskal Herriaren mobilizazio handiak egin dira, besteak beste, pobrezia gehiago ekarriko lukeen akordio horren aurka".

**'MOZAL LEGEA'**  
"Herritarron adierazpen askatasunaren kontrako neurri gogorra da. Arrasaten horren oposizio gogorra zegoela ikusita inposizio bat izan da".



**JAVIER MARCOS**  
KAZETARIA  
ARETXABALETA

**BAKEA KOLONBIAN**  
"FARCen eta Gobernuaren arteko gerra bukatu da, 50 urte ondoren. Akordioa sinatzeko, nahikoa lan; Nobelarekin aitortu dute prozesua".

**BIOLENTZIA MATXISTA**  
"Marka zitela: 50 emakume hil dituzte genero indarkeriagatik. Sexu erasoek ere segitzen dute. Gizarte batek ez luke halakorik jasan beharko".



**ITXARO ARTOLA**  
AED-KO DINAMIZATZAILA  
ARRASATE

**HIZKUNTZEN PROTOKOLOA**  
"Hizkuntza gutxituen garapenerako 180 neurri adostu dira bertan eta ekarpen itzela egin du; hizkuntza eskubideak giza eskubide dira eta".

**EUSKARA OSASUNEAN**  
"Arrasateko Osasun Mentaleko zentroan umeak artatzen zituen psikologoa erretiratu, eta euskaraz ez dakien bat jarri dute: atzerapausolarria".


# Preso eta Iheslariak KALERA KALERA!



*Osorik Hantz Taupa Ekaitz Dat Etxoste Jai zale Irati*

# 2016 eta 2017 aztergai

Hainbat arlotan emankorra eta itxaropentsua izan da 2016a, bailarako lau adituren esanetan; 2017ra begira, eragin beharreko gaiak daude: krisia, berdintasuna, euskara...



Mendebaleko eta Euskal Herriko ekonomia hazi egin da aurten. | WNET STUDIO

## EKONOMIA

ADRIAN ZELAIA | EKAI CENTERREKO PRESIDENTEA

### Urte lasaia, ekaitzaren aurretik

#### EUSKAL HERRIA

BPG, enplegu sorrera, enpresen itxaropenak edo kontsumoaren bilakaera baikorra etengabe aipatzen dugun bitartean, konpondu gabe jarraitzen du oraindik krisialdia leherrarazi zuen funtsezko arazoak. Hau da, **gainzortpetzea** eta finantza sektorearen egoera **kritikoa**.

2016an, orain arteko neurri berdintsuak ezartzen jarraitu dute gobernuak. Batez ere, 2008 eta 2010 arteko bankuen erreskateak, eta austeritate eta moneta-hedapena 2011tik aurrera. Banku sektorearen hondamena eta jardura produktiboaren beste gainbeheraldi bat azken urte hauetan alboratzeko -edo atzeratzeko- aukera eman digute neurri horiek. Testuinguru horretan kokatu behar dira, ziur asko, mendebal-

deko ekonomia eta euskal ekonomiaren aurtengo hazkunde datuak.

Mendebaleko ekonomiaren hazkunde errotimoa apala baina lasaigarria bada, urteko **%3ko abiaduran** aldagai ari da euskal ekonomia. Enplegua eta euskal industriaren gaitasun produktiboa berreskuratzu joateko abiadura egokian, behintzat.

2016

#### DEBAGOIENA

Testuinguru **lasaigarri** horretan ere koka dezakegu Debagoienaren bilakera ekonomikoa. Euskal Herriko eta mundu mailako ekonomiaren aldagai horiekin batera, **Fagor Etxetresna Elektrikoen** itxierak sortutako krisia konpontzeko asmoz hartutako neurrien ondorioz, behin-behineko lasatasuna, behintzat, bai ekarri dutela gure eskual-



**JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZKIZUEGU GUZTIOI!**



- Garajeko atea
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoa
- Konponketak
- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen atezkako sistema automatikoak



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**  
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)  
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**  
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**  
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**  
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**  
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**  
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**  
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**  
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**  
Bergara / Masterreka kalea 11, behe  
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**LAURA ALUTIZ**  
Arrasate / Otalora, 18 solairu artea 687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**  
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**  
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**  
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11  
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**  
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**  
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**  
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**  
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**  
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)  
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**  
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**  
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**  
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**  
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA**  
(AITA MENNI OSPITALEA)  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**  
Bergara / Masterreka 13, behe  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

**SADHANA YOGA**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM  
690 79 21 55